

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 18a / 569. zenbakia



## Zirkulazioa Arrasaten

ORAIN ETA HEMEN: EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA/7 • KIROLA: JONATHAN PEREZEK ERREKORRA/11

# Edertasunaren Gida

**A  
U  
SART**

Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa  
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.  
Tel.: 943 77 30 60  
943 77 21 58

**CARMEN**

**Ile apaindegia  
Solariuma**

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63

**JADE**

**ILE APAINDEGIA**

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

*Lore*



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOHERM VALMONT

*Jose Antonio*

**GIZONEZKOEN  
ILE APAINDEGIA**

Otalora lizentziatua, 22-behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

**SUSi**

**ILE APAINDEGIA**

Garibai, 3-etxabea  
Tel.: 943 79 50 27

**Richi** ile apaindegia



San Vicente Ferrer, 2-1º.  
(Grupo San Juan)  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 10 06

**ILEA**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

**aitor**

Gizonezkoen ile apaindegia  
Otalora, 14 • 20500 ARRASATE

Tel.:  
943 79 01 39  
615 78 19 63

# KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu Kontzertu Ekonomikuaren eztabaidie? Inportantie da guretako?



**JEXUX AGIRREURRETA**  
Jubilaue



**JULIANA HERNÁNDEZ**  
Langillie



**ELADIA PAUNERO**  
Etxekoandrie



**MIQUEL AGUILAR**  
Langillie



**AITOR GAZTAÑAGA**  
Langillie



**CARMEN REBOLLO**  
Etxekoandrie

Euskaldunondako ona da, geuk gure dogune atara ezkerero. Euskaldunak egixakin dabitz, eta bestiak, gezurrakin. Eta azkenian, konsegiduko dogu, biherko. Ezin izengo daue gurekin.

Gauzak ez doiez ondo, eta, egixe esan, arazo asko dagoz. Inportantie da Kontzertu Ekonomikue; dana ondo juen ezkerero, danok egongo gare hobeto, egorie egonkorrague izengo da.

Ez jat ondo pentsetan. Horren gainien ez dakit askorik, baiñe ez jat ondo pentsetan. Nik uste dot Kontzertu Ekonomikue inportantie dala Euskal Herri-xandako.

Zelabait konpondu biherko da; ez die harein aurrien makurtu biher, baiñe konpondu egin biher da. Inportantie da euskaldunondako, nork berie defendidu biher dau.

Egitten dabitzena txarto pentsetan jat, oso txarto, hori argi dago. Autodeterminaziñue eta gora Euskadi! Kontzertu Ekonomikue oso inportantie da euskaldunondako.

Politikarixek, danak, iguelak die, traje desberdiñakin, baiñe iguelak; gora ailegetan dienien... Kontzertu Ekonomikue inportantie da guretako, hobeto hamenduen Madriliekue baiño.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ZABORRAREN ORDUTEGIA BETE** Aspaldiko kontua da zaborra dagokion egunetik eta ordutegitik kanpo ateratzeak herri-tarrendako dakarren kaltea. Irakurle batzuen esanetan, zaborrak usain txarra uzten du kalean, eta, are gehiago, txakurrek poltsak zabaldu eta edukia botata uzten badute. Horregatik, herritarrei dagokien egunak eta ordutegiak errespetatu ditzatela eskatzen diete.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

KIROLA /10

ZAHARRAK BERRI /17

### Duintasunez hiltzea

Astehenean, duintasunez hiltzeko eskubide-aren aldeko testamentua aurkeztu zuten.

### Snowboard-a berba

Maira Carrasco 25 urteko arrasatearra Baqueira Beret-en dabil snowboard irakasle.

### Zaharren osasuna

Roman Balantza-tegik hirugarren adinekoen osasunaren gainean egin digu berba.

## ASTEKO DATUA

# 11.000

### AUTO DAUDE GAUR EGUN ARRASATEN

Udalak aditzera eman du 11.000 auto inguru daudela herrian. Hain zuzen ere, kopuru horrek esan gura du Arrasateko familia bakoitzeko ia bi automobil daudela (1,8, hain justu).

## BESTE EKESANA

**“Debagoiena ez da ekimen komertziala, soziala baizik. (...) Hilabeteak daramatzagu zuntz optikoa datorrela entzuten, baina ez da etortzen. Horregatik, zain gelditu orde, horri aurre hartzea erabaki dugu, esku pribatuan utziz goro, haiek nahi dituzten baldintzak ezartzen dituztelako. (...) Herritarrei interesa lekizkien edukia eta zerbitzuak eskura jarriko dizkiegu, hirigune handiek eta txikiak, denek teknologia berriez baliatzeko aukera berdinak izan ditzaten. (...) Ideia da Udalak zerbait gai mahai gainean jarri eta sarearen bidez herritarrei iritziak eskatzea. Horrela, parte hartzea zuzenagoa izango litzateke. (...) Udan batzuk martxan egongo direla uste dut, eta beste batzuek gehiago itxaron beharko dute”.**

**MIKEL IRIZAR**  
'GARA'/02-01-16

## HERRITARREN BERBAK / Itziar Ezpeleta



*Urte berri on eta bizi poza eduki*

**U**rte berri on! Hau da egun hauetan agurtzen garenean esaten duguna, baina, horrez gain, urte aldaketak gure buruari azterketa ere egiten dio; nondik gatozen edo zer egiten dugun eta norantz goazen, batez ere. Zaila egiten zaigu batzuetan horri erantzutea, baina nik uste dut aurrera jo behar dugula, nahiz eta hanka sartu, nahiz eta zalantzak eduki, bestela ez dugu ezer egingo eta...

Bizitzan nik uste dut gertaerek astindu egiten gaituztela haizeak bezala, eta haize zirimola horretatik irten edo haren barruan gaudela onartzeko, neure iparrorratzaz, aspaldi ezagutu nuen lema, hain zuzen ere, baliatzen naiz. Orduan, haizeek Alkoholiko Anonimoetara eramanez ninduten, eta haien leloa hauxe da: *Jainkoa, eman iezadazu baretasuna, konponbidetik ez duten gertaerak onartzeko. Adorea, nire eskuetan dagoena aldatzeko. Jakituria, zer egin dezakedan eta zer ez bereizte-*

*ko. Edo aurreko guztiak laburtzen dituen beste hau: Gaur, gaurkoak bakarrik.*

Idea horretaz gain, beste gai bat aipatu nahiko nuke. Aurten-go Errege bezpera gustatu zait. Erregeak etortzeko zirela, kabalगतको antolatzaileak jende faltan zebiltzan eta katekista

**“Bizitzako gertaerek astindu egiten gaituzte haizeak bezala, eta horretarako, neure iparrorratzaz baliatzen naiz”**

talde bati laguntza eskatu ziguten. Jendeak barre edo kritikatu egingo zigula pentsatu genuen, eta, ondorioz, samurrena ez joatea zen. Hala ere, azkenean suziak eramanez genituen, eta oso esperientzia polita izan zen. Ez

nuen uste Arrasaten kontu honek hainbeste jende bilduko zuenik! Hunkituta bukatu nuen umeen aurpegiak ikusita. Misterioz eta ilusioz betetako gau horretan izarrak hunkitu ninduen. Akaso ez al da izango bizitzaren koska ilusioak lantzea? Pertsona bakoitza berdin ilusio bana. Orduan, Alkoholiko Anonimoen leloa gehitu egingo nuke, hau da: *Jauna, eman iezadazu gaur ilusio bat bizi poza sentitzeko!*

# Arrasate

Otalora lizentziaduna z/g  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Iker Barandiaran  
**ERREDAKZIOA**  
Ubane Madera,  
Xabier Urzelai  
**MAKETAZIOA**  
Alex Azkarate  
**ZUZENTZAILEA**  
Sergio Azkarate

**PUBLIZITATEA**  
Arantzazu Lagunilla,  
Izaskun Bolinaga,  
Natali Martinez,  
Imanol Elortza.  
**ADMINISTRAZIOA**  
Agurtzane Ganzarain  
Ane Berezibar  
Irabxe Bengoa

**BANAKETA**  
Julen Aranguren  
**LEGE-GORDAILUA**  
55-1124/88  
**ISSN**  
0214-4654  
**TIRADA**  
7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zehitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia




Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

## ORAINDELA 10URTEARRASATEN

### Kultura taldeak lokalen zain daude



Arrasaten dauden hogeita hiru kultura taldeetatik, bederatzik bakarrik dute lokala. Gainerakoek eskaera egin diote Udalari. Udalak dituen 35 lokaletatik, zortzi hutsik daude, baina batzuk ez daude egoera onean. Talde batek baino gehiagok lehengo epaitegia eskatu du.

### BERTAKO BERTAK/ Juan Martin Elexpuru

#### "Urzulua"



Ur asko edaten duena, urzale amorratua.  
-Gure mutikua urzulo demasa da.

GORKA ORTEGA

### ARRASATE IRRATIA FM 107.7



#### Autismoa zer den jakingo dugu

Osasuna izango dugu berbaigai datorren astean. Hasteko, astelehenean, autismoa zer den jakingo dugu Gautena elkarteko kide baten laguntzarekin. Elkartek egoitza du Arrasaten. Gipuzkoako autisten familiartekoen sortu zuten elkartea. Bestalde, eguztenean, 10:00etan, Roman Balantzategirekin mediku azterketa gainean jardungo dugu. Eta eguerdian, Jon Anduezarekin egin dugu hitzordua, *Aita Guria* filma eskainiko du-eta datorren egunean.

#### Bake epailea asteko gainbegiratuan

Arrasateko bake epailearekin izan gara astean, Carmen Iriondorekin, eta asteko gainbegiratuan, harekin izandako solasaldia eskainiko dizuegu. Bake epaileak zein lan egiten duen eta zergatik hartu duen ardura hori galdetuko diogu.  
Loli Astoreka aktorea ere izan dugu lagun, domekan Arrasaten eskainiko duen *Banbulo* antzezlanen parte hartuko du-eta. Sara Vitoria psikologoa ere izan da gurean; ibarrean dagoen terapia zerbitzuan dabil lanean.

## GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 18**  
A.Azkoaga, Ferrerías 1.....943 79 15 15
- ZAPATUA, 19**  
M.F. Azkoaga, Iturriotz.....943 79 79 99
- DOMEKA, 20**  
M.Corcuera, M. Aranbarri 1.....943 79 22 26
- ASTELEHENA, 21**  
J.A. Irizar, Erguin 11.....943 79 12 39
- MARTITZENA, 22**  
L. Amezua, Santa Marina 32.....943 79 09 74
- EGUAZTENA, 23**  
I. Zabala, Zarugalde 42.....943 77 16 30
- EGUENA, 24**  
A. Ruiz, Maala 31.....943 79 14 09

## TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea, . . . . . 943 03 53 00  
Igualetoia . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa . . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria. . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa

- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok eta pediatria 943 03 52 50
  - Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11
  - Ikuskatzailea. . . . . 943 03 52 52
  - Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako ambulanziazki . . . . . 943 45 87 44

- ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILEAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENDAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57

- MONTERRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)  | <b>Domeka</b><br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)   | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  |
| <b>Domeka</b><br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | <b>Domeka</b><br>10:30 (gaztelaniaz)<br>11:30 San Isidron (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)          |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)  | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)                    |
| <b>Domeka</b><br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)  | <b>Domeka</b><br>12:00 (gaztelaniaz)   |

## OHARRAK

**IKURRINARI OMENALDIA**  
Bihar, zapatua, 19:00etan, ikurrinari omenaldia egingo diote Udaletxean eta, gero, herriko plazan. Egungo udalbatzarrak 1977koari harrera egingo dio.

**'BANBULO' ANTZEZLANA**  
Domekan, 19:30ean, Txalo antzerki taldeak *Banbulo* lana antzetzuko du Amaia Udal Antzokian. Sarrera zazpi euro kostako da, eta Gazte Txartelarekin, sei.

**FILM LABURREN EMANALDIA**  
Hilaren 24an, egunean, 21:30ean, sei film labur ikusteko aukera izango da Amaia Udal Antzokian: *Aita Guria; La primera vez; Hongos; Buenas noches, papá; Ya no puedo caminar* eta *Jardines deshabitados*.

**TXALAPARTA IKASTAROA**  
Gazteria batzordeak eta Txalaparta taldeak, lankidetzan, txalaparta ikastaroa antolatuko dute otsailaren 15etik maiatzaren 17ra arte. Saioak egubakoitzetan eta zapatuetan izango dira, Musakolako aretoan. Matrikula: 18 euro (ikasle eta langabeendako, 12).

**HEAVY JAIJA EKAITZ TABERNAN**  
Heavy jaia izango da gaur, 19:00etatik aurrera, Ekaitz tabernan. Disko jartzaileak eta sorpresak izango dira.

## AEDren AGENDA

**ARRASATE LEHIAKETAK**  
Abian daude XV. Arrasate Lehiaketak. Ipuina, poesia, komikia, bertso-paperak, euskalki grabazioak eta irrati erreportajeak. AEDra bidali otsailaren 15a baino lehen.

**DEBAGUNEKO EGUTEGIAK**  
Debaguneko egutegiak salgai daude AEDn.

## URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, Ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

### HAUGIROA!

<b>MINIMOA</b> Zapatua, 12	<b>-3 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Zapatua, 12	<b>13 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>20,2 L</b>

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	12 °C	-1 °C	- l/m²
Eguena, 10	12 °C	-2 °C	- l/m²
Egubakoitza, 11	12 °C	-2 °C	- l/m²
Zapatua, 12	13 °C	-3 °C	- l/m²
Domeka, 13	11 °C	4 °C	3,3 l/m²
Astelehena, 14	12 °C	5 °C	0,2 l/m²
Martitzena, 15	10 °C	5 °C	16,7 l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



### ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
11:30 Albistegia  
12:00 Musika  
14:00 Errepikapena
- ASTELEHENA**  
21:00 Maiuskulaz idatzitako Rock-a
- MARTITZENA**  
21:00 Hi bizi hadi
- EGUAZTENA**  
21:00 Hitz eta pitz  
22:00 Pottokatzen
- EGUENA**  
21:00 Mikelenea
- EGUBAKOITZA**  
20:00 Azkenberri.com  
21:00 Draxtor  
22:00 In session  
23:50 Asteko elkarrizketak
- ZAPATUA**  
10:00 Musika klasikoa  
11:00 Asteko elkarrizketak  
23:50 Asteko elkarrizketak
- DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

## ASTEABIHITZETAN

### Oraingoz, gripe epidemiarik ez

Nahiz eta arrasatear asko, eta oro har debagoiendar asko, gripeak jota dauden, ibarrean oraindik ez dago gripe epidemiarik. Halaxe adierazi zuten joan den astean Osakidetza ordezkariek. Gaineratu zuten normala dela gripea izatea garai honetan. Eta gripearen sintomarik izanez gero, medikuarengana joatea gomendatzen dute, hobe baita botika medikuari eskatzea, eta ez norberak uste duena hartzea. Era berean, komeni da larrialdi zerbitzurik ez erabiltzea gripe kasuetarako.

### ONCE-Eroskiko txirrindulariak Musakolan

Azken bi asteotan, ONCE-Eroski taldeko txirrindulariak Mondragoera etortzen ibili dira, Alberto Garai medikuaren laguntzarekin, denboraldi aurreko froga fisikoak egitera, hain justu. Duela pare bat aste, Abraham Olano eta Joseba Beloki izan ziren Musakolako kiroldegian. Eta joan den eguaztenean, berriz, Alvaro eta Igor González de Galdeano. Azken bi horiek adierazi zuten laster Cadizera joango direla. Han kontzentrazioa egingo dute ONCE-Eroski taldeko Manolo Saiz zuzendariarekin. Bi anaiak itxaropen tsu azaldu ziren eta denboraldi berriari ekiteko gogoarekin.

### MCCK webgunea sortu du

Mondragon Korporazio Kooperatiboak webgunea sortu du, korporazioko kooperatibek interneteko atari horretan egin ditzaten erosketak. Ordenagailuak, bulegoko materiala, argindarra, softwareak eta antzeko materiala dago salgai webgune horretan. Bidaiaren bat egin gura bada ere, atari horretan sartzea nahikoa izango da hegazkina eta hotela hartzeko.



### 'Horra Mari': 215 ume Amaia Udal Antzokian

Amaia Udal Antzokia gaztetxo eta ez hain gaztetxo bete zen joan den zapatuan. Batetik, herriko Goikobalu Abesbatzak eta Lausardi Koru Sinfonikoak musika emanaldia egin zuten. Eta, bestetik, Debagoieneko 10 urtetik gorako 215 umek *Horra Mari* izeneko musika eskaintza didaktikoa antzetzuten. Ekitaldiaren amaieran, ikus-entzuleek ere parte hartu zuten. Umeekin batera abesti bat kantatu zuten.



### USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

## Ez al dute inongo lotsarik?

Aste honetan irakurri ditudan bi berrik idatzi beharreko gaia aldatzera bultzatu naute. Batetik, azken Garzonkeria: hark *Euskaldunon Egunkaria*-ko eta *Gara*-ko zuzendariak, Martxelo Otamendi eta Mertxe Aizpurua, "talde armatuari laguntza eman eta mehatxuak egin" izanagatik inputatu ditu. Eta, bestetik, Audientzia Nazionaleko

fiskal batek Jon Abril kazetariari sei urteko kartzela zigorra ezarri nahi dio, "ETArekin kolaboratu" izanaren akusaziopean.

Otamendik eta Aizpuruak ekainean bi ETAkideri eginiko elkarrizketan UPN-ren inguruan galdetu izanagatik, gerora ETak UPNko zinegotzi bat hiltzea leporatu die. Bestetik, 2000ko udan, Bortzirietako gazte batzuk

Audientzia Nazionalean eraman zituztenean, Jon Abrilek eta Ttipi Ttapa telebistako beste lankide batzuek hara jo zuten. Beste irudirik ezean, Jonek kamerarekin filmatu zuen atxilotuak zeramatzen autoa pasatzen, beste telebista batzuen moduan. Audientzia Nazionalek autoaren matrakula ETaren mesederako filmatzea leporatzen dio. Bost milioi pezetako fidantza ordaindu eta orain sei urteko zigorra ezarri nahi diote.

## ASTEKOIRUDIA



OXEL EROSTARBE

### ESPAINIAKO TXAPELKETARAKO TXARTELA ESKURATU GURAN

Joan den asteburuan, Arrasateko Saioa gimnasioan euskal selekzioko karatekek entrenamendua egin zuten. Goizeko hamar eta erdietatik aurrera, Euskal Herri osoko karatekak izan ziren, Albaceten urtarrilaren 26an eta 27an izango den Espainiako Txapelketarako txartela eskuratu guran.

Entrenamentu horietan Iban Galan, Jorge Sánchez eta Goizeder Caballero arrasatearrak izan ziren. Iban Galanek eskuratu du Espainiako Txapelketara joateko txartela, eta Jorge Sánchezek oraingo astean jakingo du Albaceten izateko aukerarik izango duen edo ez.



MEMESA

Industria  
hornidurak

Tel. 943 71 24 25

UGARAN  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE



Txitxinpe

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

CLUB  
IYOLA

Elgetara bidea  
BERGARA  
943 76 11 29

AZPIEGITURAK / Zirkulazioaren egoera Arrasaten

# Arrasaten 11.000 auto daude, eta kontuan hartzeko moduko zirkulazio arazoak

XABIER URZELAI

Azken urteotako egoera ekonomikoarekin, lantegien gorakadak beste hainbat faktoretan izan du eragina, eta automobilak, esaterako, barra-barra saldu dira. Arrasaten hamaika mila auto daude dagoeneko, eta kanpotik ere jende asko etortzen da lanera. Astean, lantegien ordutegiak baldintzatzen dute zirkulazioa.

Astelehena, goizeko zazpiak, eta iratzargailuak ohetik altxatzeko ordua iritsi dela inoiz baino ozenago adierazi dit. Ez daukat ohean azken bost minutuez gozatzeko astirik, bestela autoa hartu orduko ilaran izango naiz-eta. Azkar gosalduta eta gero, kalera jaitsi naiz, baina atzo autoa non aparkatu nuen asmatu ezinik nabil. Zarugalden ala epaitegi aldean utzi nuen? Ala Monterron parean akaso? Arbolapetan autobusa hartzeko zain dauden hiru langile zur eta lur daude niri begira, dagoeneko bi aldiz joan naiz-eta kalean gora.

Autoa hartu eta berrehun metro egin aurretik, Bizkai aldeetik datozenekin elkartu naiz Muxibarko biribilean. Zein orduetan jaikiko dira goizeko txandan dabilzan bilbotarrak? Ideia hori buruan bueltaka darabilkidala, geldi-geldi nagoela konturatu naiz, eta hainbat minutu behar izan ditut hurrengo biribilera iristeko. Zirkulazio arazo handienak biribil horretan sortzen dira; Garagartzara doazenak eta Aretxabaletarako bidea hartu gura dutenak han elkartzen dira. Udaltzainak goizean goizetik izaten dira zirkulazioa bideratu guran, eta, egia esan, lan ederra izaten dute.

Urube auzotik aurrera eginez, Gau Txori parean atzera begiratu eta argi ilara luzea ikusten dut. Denok goaz lantegira bidean. Azkenean, iritsi naiz lanpostura, baina fitxatzera gerturatu naizenean, erlojuari begiratu eta txartela justu-justuan sartzen dudala ohartu naiz. Auto bi gehiago eta...

Nire postuan nago, eta esnatu naizenetik hona iritsi naizenerainoko begiratu azkarra egin dut; badakizue, zerbaitetan distraitu behar dut garuna. Eta autobusa hartzeko zain niri begira geratu diren hiru lagun haiek etorri zaizkit burura. Ni baino lehenago iritsiko ziren? Eta guztiok erdi hutsik zihoan autobus hori erabiliko bagenu? A! udaltzainek ez lukete lanik izango, eta, gainera, autoak sekulako askatasuna ematen dit, baina... ondorengo zortzi orduetan nora joan behar naiz, bada? Bai, trokela aldatzea tokatzen da, eta taladrina gehiago behar dut!




07:45



13:15



14:15



19:00

Arrasateko guneko batzuetako zirkulazioa, zenbait egoera eta ordutan.

## EGUERDIETAKO ZIRKULAZIOA

Goizetan zirkulazio handia izaten bada, eguerdi partean ez da gutxiagorik izaten. Unibertsitaterako ordutegiak eta arratsaldeko ordu bietako errelebuak autoz betetzen dituzte berriro ere Arrasateko errepideak. Asko oinez edo bizikletan joaten dira lanera, eta goizaldeko osteratxoak gogorra

izaten bada ere, eguerdian auto guztiak aurre hartzea eskertu egiten da. "Ohitura kontua besterik ez da", diote errepidearen bazterretik oinez doazen hainbat lagunek. "Ni kalean bizi naiz, eta eguerdi askotan lehenago iristen naiz oinez autoz baino".

Arratsalde partean, lantegietarako bideak lasaitu ederra

hartzen dute, eta herriko erdi-gunean pilotzen dira autoak. Arratsaldeko ordu horietan herri-tarrak erdialdera jotzen dute alde zahar inguruan erosketak egin edo buelta bat emateko, eta orduan, zirkulazio arazoari aparkalekuena gehitzen zaio. Roneoko etxeetan parking publikoa egonda ere, arrasatearrok, ohi-

tura kontuagatik-edo, gurago izaten dugu kalean gora eta behera aparkatzeko leku baten bila ibiltzea, eta askotan denbora dezente behar izaten dugu helburu hori betetzeko.

Arrasateko auto saltzaileendako garai onak izan dira hauek izan ere, azken urteotan auto mardoa saldu dituzte. Diotenez, autoen salmenta kopuruek herri horretako egoera ekonomiko islatzen dute, beraz, Arrasateko egoerak bikaina izan behar du. Aurten, Arrasaten, Opel Astra, Renault Megane eta Ford Focus automobilak saldu dira gehien, eta hiru modelo horien artean 120 automobil baino gehiago saldu dira.

Udaleko azken datuen arabera, Arrasatek 23.425 bizilagun ditu, eta martxoan irtengo diren datuen arabera, herrian hamaika mila auto inguru daude. Datuen arabera, hortaz, bi laguneko auto bat dago, batez beste, eta familiako 1,8 auto. Gauzak horrela, familia bakoitzean ia bi auto daude.

## BESTE GARRAIOBIDE BATZUK

Arrasateko zirkulazioaren egoera hobetzeko hainbat proiektu daude mahai gainean, eta, horretan gain, ondorengo urteotan beste garraio bide batzuk izango ditugu aukeran. Garraio bide horien inguruan hainbat eztabaida sortu dira izan ere, Abiadura Handiko Trenak eta autobideak ez dituzte konponduko herrian izaten diren zirkulazio arazoak. Beste helburu batzuk bideratzeko proiektu egokiak diren edo ez beste baterako utziko dugu, baina argi dago herri barruko zirkulazioan eragin handirik izango ez dutela.

Badirudi tranbiaren proiektua begi hobeekin ikusten duela jendeak, eta kontuan izaten duela gu ondoko herrietako jende asko etortzen dela hona lanera, baina, badirudi, ondo erabiliz gero, eragiteko positiboa izan dezakeela. Hala ere, argi dago ehunka errepide egiteak ez duela herriko zirkulazioaren arazoa konponduko, eta ohitura batzuk aldatzearekin batera, herriko gauza asko aldatu behar iratekeela. Zerbitzu publikoak aldeko apustua eginez gero, seguru asko horieko egoera onean egiteko aldarrikapena gaur egiteko dutenek baino askoz gehiago egingo luketela.

Azkenik, europarrak baldin bagara, euroa geureganatzea baino zerbait gehiago egin behar genuke, eta, adibidez, holandarrak daukaten ohitura on bati hain jarraipena eman. Askok lelokeria dela usteko badute ere, herri bidegorriak jarrita, bizikletak hain eta hona ibiltzeko aukera izango litzateke, eta seguru arazoak onerara egingo lukeela. Ziur nago ohitura kontua baino ez dela.

## Inori komeni zaio?

Galdera hori behin eta berriro errepikatu du gaur egun enpresa pribatu bateko autobus gidari den arrasatear batek. Nori komeni zaio zerbitzu publikoak ondo ibiltzea?

Guztion kritika jaso behar izan dute behin baino gehiagotan zerbitzu publikoek, baina Arrasaten, eta ibarrean, argi dago jende eta enpresa asko kaltetuak izango liratekeela, baldin eta zerbitzu horiek benetako zerbitzu izango balira. Lehenago aipaturiko autobus gidariak (eta

gai honetan inork ezer badaki hori autobus gidari bat da) beste galdera bat ere egiten zuen behin eta berriro: "Inork badaki inguru honetan zenbat kontzesionario, garaje edo tailer, aseguru etxe, gasolina zerbitzugune, errepideak egiten dituzten enpresa, eta abar dagoen?"

Argi dago, hortaz, guztion ahotan izaten diren zerbitzu publikoek hainbat oztopo dituztela euren lana behar bezala betetzeko, eta horietan nahi beste inbertituzeko. Ematen du, bai, zer pentsatu.

# Euskararen Plan Estrategikoaren lehenengo zatia abian dago herrian

UBANE MADERA

Arrasaten beste inon baino aurreratuago dabilta Euskararen Plan Estrategikoarekin. Hemen, herriaren plan estrategikoa egin aurretik, herriko euskalgintzaren plan estrategikoa egingo dute. Datorren astean, hilaren 26an, herriko euskalgintzako talde guztiak kongresua izango dute.

Hamalau talde elkartuko dira datorren zapatuko kongresuan. Ordu-rako, talde bakoitzak egina izango du euskararekin lotutako hausnarketa. Kongresuan talde guztien ikuspegiak, iritziak eta bestelakoak batuko dira, gero, guztien artean diagnosa egiteko. Goizean goiz elkartuko dira, eta, banan-banan, talde bakoitzak bere ikuspegiak azalduko ditu, arratsaldeko ordu biak arte. Gero, guztiak elkarrekin bazkalduko dute eta arratsaldean goizeko saioari buruzko iritzi, komentario eta bestelakoak bateratuko dituzte. Helburua da guztion artean finkatzea zein izango den etorkizunerako euskalgintzaren plan estrategikoa.

Euskalgintzako taldeez gain herriko edozein euskaltzalek kongresu horretan parte hartu gura badu, hilaren 22a baino lehen abisatu beharko dio AEDri.



ARTXIBOA

Euskalgintzaren plan estrategikoa erabakitze kongresua egingo dute.

Hori guztia Euskararen Plan Estrategikoa betetzeko lehenengo zatia besterik ez da. Mondragoen bakarrik egingo dute; Ander Elortondo AEDko idazkariak adierazitakoaren arabera, "erabaki dugu lehenengo euskalgintzako talde guztiak batu egin behar gara, gero, guztien artean erabakitze zein izango den herria euskalduntzeko lan-ildoak. Beste guztien dako eredu izan behar gara. Arrasateko kasuan, erantzukizuna herriko euskalgintzak hartu du, eta

gainerako taldeei edo sektoreei ezer eskatu aurretik, geuk egin behar dugu". Aste Santurako bukatuko da lehenengo zatia. Eta gero, udazkenean, bigarren zatia ekingo diote: Arrasate euskalduntzeko lanari, hain justu.

Oro har, 2003. urterako finkatuta izango dituzte hurrengo urtean euskalgintzak jarraitu beharreko lan-ildoak eta herriko sektore guztietan sektorea euskalduntzeko eman behar diren pausoak zeintzuk diren.

# Duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko testamentua aurkeztuta

UBANE MADERA

Bizi Testamentuaren Erregistroa egitea eskatu zuen astelehenean Udalean Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkarteak. Debagoieneko beste udal batzuetan egin den moduan, Arrasaten erregistratu dute, eta, orain, Udalak erabaki beharko du bere egi-

ten duen edo ez.

## HELURU BI

Helburu bi ditu elkarte horrek: batetik, Bizi Testamentuaren aldeko erregistroa sortzea; eta, bestetik, Udalak bere egitea elkartearen helburua. Elkarteak, oro har, honakoa eskatzen du: sendabiderik ez duen gaixotasuna izanez

gero, tratamendua jaso edo ez jaso erabakitze eskubidea edukitzea. Testamentuaren bidez, heriotza duina izateko nahia adierazi gura dute, lasai hiltzen uzteko adierazpena, hain justu ere. Herrietako udaletan aurkeztu eta gero, Eusko Legebiltzarrerara eramango dute Bizi Testamentua, han legez onar dezaten.

## LABUR


### Hasi dira 2002ko telefonoen gida banatzen. Ibarreko bost herritako telefonoak ditu

Oraingo astean hasi dira 2002ko telefonoen gida banatzen. Arrasateko, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Leintz Gatzagako eta Aramaioko telefonoak ekarriko ditu; hortaz, herri horietan banatuko dute gida.

Guztira 12.300 gida banatuko dituzte ibarrean. Arrasateri dagokionez, hilaren 21erako (astelehena) etxean jaso ez duenak dei dezala honako telefonoetara: 943712390/91. Edo pasa dadila ARRASATE PRESSko egoitzatik (Otalora Lizentziaduna 31).

### Bukatu da zentsua eta errolda herritzeko epea. Herritarren %10ek ez dute zentsua berritu

Bukatu da Arrasateko zentsua eta errolda herritzeko epea; joan den zapatuan bukatu zen, hain zuzen. Orain, azkeneko datuak batzen dabilta. Lan horren arduradun Leire Blancok adierazi digunez, gutxi gorabehera arrasatearren %10ek ez dute zentsua berritu. Edozelan ere, herritar horiek herrian erroldatuta segitzen dute. Orain, erroldaren datuak Udalerako izango dira eta zentsukoak, berriz, Estatistika Institutu Nazionalera eramango dituzte, Madrilera, alegia, eta han estatistikak egingo dituzte.



### Ibai Artek beste astebete eman du

Ibai Artek urtarrilaren 26ra arteko epea eman du Gabonetako zozketako irabazleak agertzeko. 800.000 pezetan baloratutako hiru otar zozkatu zituen hilaren 6an, eta ez da irabazlerik agertu. Lehenengo saria Epelde argazki dendak eman zuen (54.627 zenbakia); bigarrena, Tamayo paper dendak (23.659 zenbakia); eta hirugarrena, Titare lentzeria dendak (36.954 zenbakia). Irabazlerik agertu ezean, saria Harreman GKERendako izango da.



# LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

## Gaur inauguratu dute San Kristobal hilerriko errausketa-labea

UBANE MADERA

Gaur eguerdian inauguratu dute gorpuak errausteko San Kristobal hilerrian ipini duten labea. Zerbitzu hori beste leku batzuetan baino merkeagoa izango da Arrasaten: 150,25 euro kostatuko da (25.000 pezeta). Astelehenetik aurrera erabili ahal izango da.

San Kristobal hilerriko barrualdean dago gorpuak errausteko labea, ezkerrean. Jeneralean, labea dagoen gelaren ondoan senitartekoei errausketa ikusteko beste gelatxo bat izaten da, kristal batekin babestuta. Baina San Kristobal hilerrian ez dago horrelako gelarik ipintzeko lekurik. Hori dela eta, tanatorioa egiten ari diren eraikinean gela berezi bat prestatu dute. Han telebista pantaila bat dago, eta gorpuak errausteko labea dagoen gelan, berriz, ate ostean errausketa grabatzeko beste kamera bat dago. Horrela, hildakoaren senitartekoei tanatorioko gela horretatik errausketa ikusi ahal izango dute, telebistaz.

Joan den irailean hasi ziren errausketa-labea eraikitze lanak egiten, eta oraingo astean bukatu dituzte. Udalak ia



Oraingo astean bukatu dituzte lanak. Udalak ia 91.000 euro inbertitu ditu.

91.000 euroko inbertsioa egin du lan horietan (hamabost milioi pezeta).

### MERKEAGO

Astelehenetik aurrera erabili ahal izango da Udalak eskaintzen duen zerbitzu hori. Gainera, beste herri batzuetan baino merkeagoa izango da. Jose Mari Urizar Udaleko Zerbitzu Saileko buruak adierazitakoaren arabera, "gure asmoa da herriari zer-

bitzua ematea, eta ez dirua ateratzea. Kalkulu batzuk egin ditugu eta ikusi dugu 25.000 pezeta-rekin ez dugula dirurik galtzen; irabazi ere ez dugu egiten, baina hori da udal batek egin behar duena: zerbitzua eman, alegia".


Esan bezala, inaugurazio ekitaldia gaur izan da, eguerdian. Hantxe izan dira, besteak beste, Xabier Zubizarreta Arrasateko alkatea eta Jose Mari Urizar Ametzu.

## Anorexia edo bulimia duten gaixoen familiarrekoei laguntzeko taldea

UBANE MADERA

Euskadiko Anorexiaren eta Bulimiaren Aurkako Elkarteak, ACABEk, prentsaurrekoa egin zuen martitzenean. Elkartearen helburua da Mondragoen anorexia edo bulimia duten gaixoen senideei laguntzeko taldea sortzea. Ibar osoko herritarrendako izango da.

Anorexia edo bulimia duten gaixoen senideendako laguntza taldea sortu gura du ACABEk Debagoienean. Gaixoaren guraso, anai-arreba, mutil edo neskalagun eta antzekoei egongo da zuzenduta taldea. Azken baten, etxean duten gaixoa eta haren gaixotasuna hobeto zaindu eta ulertzeko laguntza eskaintzea da helburua. ACABEko presidente Garbiñe Herizek prentsaurrekoan adierazi zuen "senitartekoei gaixoaren azalpenak emango zaizkiela: zer duen, zer egin behar duten, zelan zaindu, krisi egoeratan zer egin... Azken baten, anorexia edo bulimia gaixotasun luzeak dira, urteak irauten dute. Eta, gainera, zenbait kasutan gaixoa ez da sekula sendatuko, bestetan erdizka geratuko da eta beste batzuetan guztiz sendatuko da". Arrasaten sortuko den laguntza taldea hama-



ACABEko ordezkariekin batera, ibarreko udaletako Gizarte Zerbitzuetako ordezkariak ere izan ziren prentsaurrekoan.

bostean behin elkartuko da. ACABEko psikologoak izango dira gidariak.

Laguntza taldean parte hartu gura duenak urtarrilaren 29a baino lehen eman beharko du izena edo Udaleko Gizarte Zerbitzuan, edo ACABE deituta, 943482609 telefonora.

### GAIXO GAZTEAK

Oso gazteak izaten dira bulimia edo anorexia izaten dituzten gai-

xoak. ACABEk emandako datuen arabera, 12 eta 20 urte arteko emakumezkoen %4,5ek dute mota horretako gaixotasunen bat. Eta, anorexia kasu bakoitzeko, bulimiako lau kasu izaten dira. Era berean, gaixoen %90 emakumeak dira eta %10 gizonak. ACABEk adierazitakoaren arabera, "urtero 100 kasu izaten ditugu Donostiako taldean". 1994an sortu zen hango taldea, eta orduetik hona 800-900 kasu izan dituzte.

## LABUR

### Fagorrek eta Elcok etxetresna elektrikoen Brandt enpresa frantziarra eskuratu dute

Frantziako Nanterreko Merkataritza Auzitegiak erabaki zuen Fagorrek eta Elcok saltzea Frantziako Brandt enpresa. Fagorrek enpresaren %10 eskuratuko du, eta gainerakoa, Elcok.

Joan den irailean, Moulinex-Brandt taldeko zuzendaritza ordainketa etenaldia iragarri zuen eta taldea Nanterreko Merkataritza Auzitegiaren esku geratu zen. Hark erabaki zuen Moulinex-Brandt taldea banatu eta enpresa bakoitzari erosle bana kentzea. Brandt erosteko lau eskaintza jaso zituen: Elco-Fagorrek, Whirlpool enpresa estatubatuarrena, Arcelik-Bekokena eta Candy enpresa italiarrena. Eta punta-puntako enpresa horien eskaintzak gainditu zituen Elco-Fagorrek. Hain justu, Brandt konpainiak Frantzian dituen zazpi lantegietatik sei bere kargu hartuko ditu, baita zazpigarrenaren zati bat ere; eta adierazi zuen 5.300 langiletatik 4.195ek segituko dutela.

### Herriko goiko auzoetara igotzeko, igogailua ipintzeko eskaera egin diote Udalari

Altamira, Aldaigain, Azatza, Santa Marina, Obenerreka eta Maltzena auzoetako bizilagunek auzo horietara igotzeko igogailu publikoak ipintzeko eskatu diote Udalari. Auzo horietara joateko alde handiak edo eskailerak igo behar direla eta egin dute eskaera. Auzotarrek uste dute oraintxe dela hori egiteko une egokia. Kontuan hartuta gaztetxe berriaren kanpoko aldean igogailua ipintzeko behar dutela, eskatu dute igogailu hori guztien erabilerarako izatea.

Udalak eskaera aztertu eta erantzun die igogailu bat ipintzeko inolako eragozpenik ez dagoela, baldin eta "hasierako instalazioan, horren ustiapenean eta geroko mantentze lanetan sustatzaileak partikularrak izaten badira". Edozelan ere, Udalak generatu du goiko aldeko auzoetara iristeko baliabide mekanikoa ipintzeko aukera aztertzen ari dela (Eibarren ipini dituzten eskailera mekanikoen antzerakoak, adibidez), eta goiko aldeko auzoetan irisgarritasuna bermatzeko irtenbidea topatzen ahalegindu duko dela.



### Ikurrinari omenaldia 25. urteurrenean

Bihar, zapatua, omenaldia egingo diote ikurrinari Arrasaten. Ikurrina legezatu eta balkoian ipini zuteneko 25 urte beteko direla eta egingo diote omenaldia. 19:00etan hasiko da; 19:00etan 19:00etan egindako bilkuran erabaki baitzuten ikurrina ipintzea. Gaur egungo udalbatzarrak 1977ko udalbatzarrari protokolozko harrera egingo dio. Duela 25 urte onartutako testua irakurriko dute, eta gero, hitz batzuk esango dituzte. Bukatutakoan, balkoian irten eta ikurrina altxatuko dute, orain 25 urte bezala. Eta dantzariek Agurra eta Ikurrin Dantza egingo diote ikurrinari.





## BARNETEGITIK GURERA

**J**oan den astean, ustekabe atsegina izan genuen; izan ere, askotan umeak izaten dira bisitan, baina oraingoan Oñatiko barnetegikoen bisita izan genuen. Horietako batzuk orain dela hainbat urte ARRASATE PRESS eta ATB bisitatzen izan ziren, baina orduan, ez ei zuten ezer ulertu. Oraingoan, berriz, berrikerian jardun zuten gurekin. Zorionak!



## MIMOA SEBER ALTUBEN

**S**arri berba asko egiten dugu, larregi, eta gehienetan ez dugu gauza handirik esaten. Hori gutxi balitz, asko berba eginda ere, inor gutxi egiten digu kasu. Astelehen goizean, mimo bat izan zen Seber Altuben, eta ezer esan barik ere, jendeak kasu egiten zion. Haren ingurutik pasatzen zirenek, txanpona botatzearekin bat, agur bat jasotzen zuten.



## NACHO DUATO EZAGUTZEKO AUKERA

**A** benduaren 19an, Espainiako Dantza Talde Nazionala izan zen Donostiako Kurasaalean, eta Ainhoa, Susana, Jon eta Soltxu Gipuzkoako hiribururaino gerturatu ziren dantza talde horren

ikuskitunaz gozatzeko. Kurasaalaren kanpoaldean Nacho Duatorekin egin zuten topo, eta harekin berba egin eta argazki bat ateratzeko aukera izan zuten. Telebistan bezain ederra ei da.



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA

## URTE BERRIKO ASMO ONAK BETETZEN LAGUNTZEN DIZUGU



YOGA

TALDE BERRIAK



ARETO DANTZAK

IKASTAROA

MATRIKULAZIO

ESKAINITZA

Zure matrikula urtarrila amaitu baino lehenago egiten baduzu % 20ko beherapena izango duzu matrikula egiteko orduan

**Taldeak**  
Asteartea-Ostirala 10.30-12.00  
Astelehena-Asteazkena 13.15-14.45  
Astelehena-Ostirala 16.00-17.30

**Ordutegia**  
10.30-12.00  
13.15-14.45  
16.00-17.30

VALS • CHACHACHA • SALSA • BACHATA  
Egunak: Larunbata      Ordutegia: 11.30-13.00

Bixente Ferrer, 1  
Tel.: 943 79 52 17

## ELKARRIZKETA

MAIRA CARRASCO/SNOWBOARD-EKO IRAKASLEA

**“Nire bizimodua snowboard-aren inguruan antolatzen saiatzen naiz”**

XABIER URZELAI

**H**ogeita bost urteko arrasatear honek lau urte daramatza Baqueira Beret-en snowboard-eko irakasle. Hamazazpi urterekin hasi zen kirol horretan, neska bat snowboard taula baten gainean ikustea arrotza zenean.

**Jende asko dabil snowboard-a egiten ikasi guran?**

Bai, geroago eta gehiago. Normalean jende gaztea animatzen da, baina umeak eta nagusiak ere izaten dira. Egunero izaten ditut eskolak. Jende asko dabil kirol hori ikasi guran.

**Zer-nolako bizimodua daramazu Baqueiran?**

Normalean goizeko zortzietan jaikitzen naiz, bederatzi eta erdietan pistetan egon behar izaten dut-eta. Eskolak goizeko hamarretan hasten dira, eta arratsaldeko bostetan amaitu, baina orain, egunean bi edo hiru orduz soilik izaten naiz eskolak ematen. Gabonetan eskaera askoz handiagoa zen, eta egun osoan izaten nituen eskolak.

**Zer moduzko lana da?**

Niri asko gustatzen zait, jende asko ezagutzen dut-eta. Horrez gain, zuri gehien gustatzen zai-zuna besteei irakastea polita da.

**Jende ospetsuarekin ego-tea tokatu zaizu?**

Bai. Orain, Athleticen Ismael Urzaiz eta Bittor Alkiza datozkit burura. Oso jatorrak iruditu zitzaizkidan, eta ondo moldatzen ziren. Kirola egiten dutenek erraztasuna izaten dute kirol hori ikasteko.

**Jendeak boladan dagoen kirola delako praktikatzan du snowboard-a?**

Denetik dago. Niretako bizitzeko modu bat da snowboard-a. Bizimodua kirol horren inguruan moldatzen dut. Neguan Baqueiran izaten naiz eskolak eman eta snowboard-a egiten. Oporretan Frantziako glaziar batera joaten naiz kirol hori egitera, eta gainerako hilabeteetan Arrasaten izaten naiz, lanean.

**Kirol horretan lehiaketak ere izaten dira. Parte hartu duzu txapelketaren baten?**

Orain dela bi urte, txapelketa baten izan nintzen, baina probatzeko izan zen. Oso argi daukat hori ez dela nire helburua, eta txapelketei ez diet garrantzirik ematen. Nire helburua kirol horrekin ondo pasatzea da.

**Zer-nolako pistak daude Espainiako Estatuan?**

Nire ustez, Baqueirako pistak hemen inguruan dauden pista onenak dira. Formigal-eko pistak ere oso ondo daude, eta Euskal Herriatik gertuago, gainera. Hala



ARRASATE PRESS

**“Nire ustez, Baqueira Beret-en Espainiako pista onenak daude, baina oso garestia da bizimodua han”**

ere, pista horietan asteburuetan jende mordoia izaten da, larregi nire gusturako.

**Kirol garestia da?**

Argi dago oso kirol garestia dela. Eguneko *forfait*-ak bost mila pezeta balio du, eta, horrez gain, gaua pasatu, eskiatzeko arropa aproposak, materiala alokatu...

**Badago eskiatzera baino eskiatzen izan dela esateko joaten denik?**

Bai, horrelakoak ere badaude, geroago eta gehiago. Hau oso handia da, eta denetik ikusten da.

**Baqueira Beret da udako Marbella?**

Baietz esango nuke. Dirudun asko egoten da, eta dirua gastatzeko prestatuta dago hori guztia. Gauzak nahiko garestiak dira,

**“Arrasateko jendea Formigal-era edo Candanchura joaten da; azken baten hurbilago daude”**

eta punta-puntako jatetxeak eta hotelak daude.

**Arrasateko jendea joaten da Baqueirara asteburuetan?**

Bai. Herriko jendea ikusten dut, baina arrasatearrak normalean Formigal edo Candanchu aldera joaten dira, gertuago daude-eta. Baqueirara zubiak daudenean edo Gabonetan joaten dira, urrunago dago-eta.

**Egunak 24 ordu ditu; hortaz, gauetan zer?**

Baqueiran sekulako giroa izaten da gauetan, baina ni, behintzat, zapatuetan bakarrik irteten naiz, eta oso gustura ibili ere. Egunero izaten ditut eskolak, baina tira, domeketan lo gutxi eginda jaikitzeagatik ez da ezer pasatzen.

SASKIBALOA

**Kenci Arrasate puntu barik itzuli zen Leioatik, eta, beste behin, epaileek kalte egin zioten**

Kenci Arrasatek galdu egin zuen aurreko zapatuan Leioako Askartza taldearen aurka. Porrota, hala ere, ez zen bidezkoa izan, epaileek lan negargarria egin zuten-eta, arrasatearren kalterako.

Partidu osoan maila polita erakusteaz gain, markagailuak erabiltzeko arrasatearren aldeko alde islatu zuen azken minutuetara ar. Askartzako taldea arrasatearrei irabazteko gai ez zenez, epaileek estimatzeko laguntza eskaini zioten, eta bizkaitarrek ondo aprobetxatu zuten hori. Arrasatearrek, amaierarako minutu bi falta zirela, bederatzi puntuko alde zeukaten, baina epaileek, erabaki ulertezin batzuen erruz, partidua eskuetatik lapurtu zieten. Eta emaitza honakoa izan zen: 82-78.

FUTBOLA

**Mondra beste hiru punturen bila joango da Zestoara, Ondarroan 0-4 irabazi eta gero**

Urtea bikain hasi du erregional mailako taldeak, eta hori ez da kasualitatea, izan ere, joan den denboraldian ere hasiera kaskarra izan eta gero, etxeko taldeak gorantz egin zuen. Urtarrilean jokaturako partidu bietan etxeko taldeak sei gol egin ditu eta bakar bat ere ez du jaso. Horrez gain, azkeneko sei jardunaldietan ez dute partidurik galdu.

Goiko postuetan jarraitzeko, etxekoek maila horri eutsi behar diote. Hurrengo erronka asteburu honetan izango da, Zestoaren zelaian. Ondarroan bezala, Zestoan ere futbol zelaia ez da oso egoera onean egongo, baina dagoeneko hori ez da aitzakia.

XAKEA

**Arrasateko Xake Taldeak, ezusterik ez bada, Euskal Ligan jokatu du datorren urtean**

Joan den zapatuan, Arrasateko Xake Taldeak Baionaren kontra jokatu zuen. Bederatzigarren jardunaldia zen, eta etxekoak 4-0 nagusitu ziren. Baiona iparraldeko talderik onena da, eta Gipuzkoako ligan jokatu du, baina, hala ere, etxekoek ez zuten zailtasun handirik izan puntu guztiak eskuratzeko.

Hala, Arrasatek 14 taldetatik lehena izaten jarraitzen du, 29,5 punturekin, eta bigarren taldea bederatzi puntura dago. Bihar, hamargarren jardunaldia jokatu du, eta Arrasateko talde nagusiak Donostiara joan beharko du, Gros D taldearen kontra jokatzera. Arrasate B eta C taldeak goiko ligetara igotzeko aukera dute oraindik, baina asteburuan ezin izango dute kale egin.

MENDIA

**Besaide Mendizale Elkarteak sagardotegira joateko txangoa antolatu du**

Urtarrilaren 27an, Besaide Mendizale Elkarteak sagardotegira joango dira. Hala ere, goiz partean, gosea egiteko, mendian osteratxoa egiteko asmoa daukate. Ibilalditxo hori Besabin hasi eta, Adarra bisitatu eta gero, Oindin amaituko da. Eguerdian, Herriko sagardotegi batera joango dira; hortaz, tentaldi horri aurre egin ezin duenak urtarrilaren 22a, 23a eta 24a probetza ditzakete Besaideren egoitzan izena emateko.

Eguenean, Besaide Mendizale Elkarteak urteroko batzarra egin zuen Monterron jauregian. Beste gauza batzuen artean, egindako ekintzen gainbegiratua egin zuten. Eski irteerak harrena ona izaten dute, baina mendiko irteerak bultzatzeko beharra ikusi dute.


PILOTA

**Debarroko Txapelketan arrasatearrek aretxabaletarren kontra jokatu zuten**

Martitzen arratsaldean, Debarroko Txapelketako partidua izan ziren Uarkapen. Arrasateko hiru bikoteek Aretxabaletako pilotarien kontra jokatu zuten 19:30ean. Seniorrak ez ezik, beste bi partiduetan etxeko pilotariak nagusitu ziren.

Kadetetan, Jiménez eta Gonzalo arrasatearrek aritu ziren Aretxabaletako bikotearen kontra, eta etxekoak 22-11 nagusitu ziren. Gazte mailan Uribarren eta Agirre 22-6 nagusitu ziren, baina seniorrek ezin izan zuten arratsaldea bikain amaitu. Zugastik eta Lazkanok Aretxabaletako Errasti anaien kontra jokatu zuten; partidua ordu bete iraun zuen, eta kanpotarrak 8-22 nagusitu ziren.

FOTOKIROLA



### Jonathan Pérezek marka berria

Atleta arrasatearrak bolada onean daude, hainbat marka hautsi dituzte-eta. Joan den astean Unai Sarabia izan bazen protagonista, oraingoan Real Sociedad taldean diharduen Jonathan Pérez da mintzagai. Atleta arrasatearrak 4,75 metroko jauzia egin berri du Gipuzkoako Txapelketan. Jonathanen hurrengo helburua izango da Euskadiko eta Espainiako txapelketetan parte hartzea eta, lan zaila bada ere, bost metroko jauzia egitea. /XABIER URZELAI

## Arrasate Errugbi Taldeak Durangoren kontra hasiko du bigarren itzulia

XABIER URZELAI

Arrasate Errugbi Taldeak lehen itzulia bukatu zuen zapatuan, eta ezin hobeto bukatu gainera. 31-13 nagusitu zitzaion Arratiko taldeari, baina emaitzak ez du zelaian ikusitakoa islatzen, etxekoek ez zuten-eta ondo jokatu. Oraingo asteburuan, Durango izango da aurkaria.

Arrasate Errugbi Taldeko mutilek oraingo asteburuan jokatuko dute bigarren itzuliko lehen partidua. Arrasatearrek bigarren itzulian lehenengoan bezain ondo jokatzen badute, seguru asko denboraldiaren amaieran titulua irabazteko lehian izango direla. Hala ere, oraindik goiz da ezer iragartzeko, eta, gainera, etxeko taldeak ez du gura beste jokalaririk; gauzak horrela, denboraldi amaieran arrasatearrak larri ibili daitezke orain arte erakutsitako mailari eusteko. Momentuz, Durangon irabaztea izango da hurrengo helburua.

#### AZKEN MOMENTUKO ERREAKZIOA

Patxi Gorosabalen mutilek goiko postuetan amaitu dute lehen itzulia, baina ez joan den asteburuko partiduan erakutsitako jokogatik.



OXEL EROSTARBE

Arrasateko jokalariek bigarren zatian erakutsi zuten zer egiteko gai diren.

Arrasatek, gaizki jokatuta ere, irabazi egin zuen, baina gailentzea ez zen bat ere erraza izan. Lehenengo zatian bi taldeetako inor ez zen jokoan sartu, eta jokalariek, partiduan baino, burua beste nonbaiten zeukatela ematen zuen. Arratiko taldeak ez zuen arrisku handirik sortu, baina arrasatearrek ere ez zuten euren jokoa egiterik lortu.

Bigarren zatiaren hasieran gauzak ez ziren askorik aldatu,

baina pixkanaka-pixkanaka norgehiagokak beste itxura bat hartu zuen. Patxi Gorosabel zelaira irteteak on egin zion taldeari, eta motibazioa, indarra eta esperientzia nabaritu zen hori. Azkenengo minutuetan arrasatearrek oso joko ona egin zuten: hiru entsegu eta bi transformazio egin zituzten, eta horietako entsegu bat, azkena, hain zuzen, denboraldiko politenetakoa izan zen, gainera.



Ba al dakizu zer dagoen begirada eder baten atzean?...  
Eta aurrean?

# Multi ESKAINTZAK

## MULTIOPTICAS

BONARDI  
AIREKO  
ARMAZOI  
BERRIAK

# 49

8.153 € pta.

### MULTIOPTICAS



**BERGARA**  
Tel. 943 76 15 75



**ARRASATE**  
Tel. 943 79 29 95



**ORDIZIA**  
Tel. 943 88 99 88

# Asteburu beltza izan da Arrasateko senior mailako eskubaloit taldeentzat

XABIER URZELAI

Arrasateko senior mailako talde biek ez zuten zorte onik izan. Bernardo Balerdiren taldeak aukera gutxi ditu igoera fasea jokatzeko, eta Herrerosen mutilek ez zuten itxura polita eskaini Donostian. Iturripen izan zen epailea barregarri egon zen, eta, beste behin, etxeko taldea izan zen kaltetuena.

Arrasatearrak joan den asteburu ahalik eta azkarren ahazten ahaleginduko dira; izan ere, bi taldeek emaitza ustelak izan zituzten. Bernardo Balerdiren mutilek Donibaneren bisita izan zuten, eta epaileak lagunduta, kanpotarrek 21-22 irabazi zuten. Ikusleak ez ziren pozik agertu epaileak hartutako erabakiekin, eta hitz ez oso goxoak entzun eta gero, epaileak ikusle bati jotzeko asmoa erakutsi zuen. Ez zuen epaile batek eman behar duen neurria erakutsi, ez partidua epaitzerakotan, ezta epaile batek izan behar duen jarreraren ere.

Oraingo asteburuan, senior mailako lehen taldeak Tolosan jokatu du. Partidua domekan



OXEL EROSTARBE

Arrasateko eta Donibaneko jokalariai aurrez aurre Iturripen.

izango da, eguerdiko hamabietatik aurrera.

## BIGARREN TALDEAREN JOKO TXARRA

Jesus Mari Herrero senior mailako bigarren taldeko entrenatzailea ez da batere pozik agertu haren taldeak joan den asteburuan egindako lanarekin. Azterketak direla-eta, jokalaria gutxi-

rekin joan ziren arrasatearrak Donostiara, baina Herrerosen argi dauka hori ez dela aitzakia, denboraldiko partidua kaskarre-na jokatu zuten-eta.

Oraingo asteburuan, domekan izango dute hitzordua, baina Musakolako kiroldegian izango da norgehiagoka, goizeko hamai-ka eta erdietan.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

#### A MULTZOA

Betrayer - Chapime Dribling	3-3
Bikain Akademia - Rayo Aldeano	9-1
Usotz Potroak - Aurrera Bolle	5-2
Iritz Taberna - Saukelu Scream	9-2
Makanaki - Bazar Toki On	3-3
Lasgabaster - Fragel Gol	8-1
Maldifa's - Estu Ta Larri	3-23
Txotx - Goma2	2-12

#### B MULTZOA

Abokajarro - Koka Junior Basati	4-12
Full Duplex - Etxerat	4-7
Azkena You Know - AC Surcos	1-2
Etxinai! - Bin Laden	7-8
AKTA - Komando Alpagat	1-8
EGD - AT Celaya	3-6
IKP - DDK	4-2

### PARTIDUAK

#### URTARRILAK 19, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: AKTA - DDK. AT Celaya
10:00: Etxinai! - AT Celaya. DDK
11:00: Betrayer - Rayo Aldeano. Etxinai!
12:00: Full Duplex - Bin Laden. Rayo Alde
13:00: Goma2 - Lasgabaster. Full Duplex
14:00: Maldifa's - Txotx. Goma2
15:00: IKP - EGD. Txotx
16:00: Irati STS - KJ Basati. EGD
17:00: Chapime Dr - Aurrera Bol. KJ Basati
18:00: Fragel Gol - Iritz Tab. Chap Drib
19:00: Bikain Akad - Saukelu Scr. Iritz Tab

#### URTARRILAK 20, DOMEKA

09:50: AC Surcos - Abokajarro. Estu Ta Larr
11:00: Makanaki - Estu Ta Larri. Abocajarr
12:00: Azkena YK - K. Alpagat. Makanaki
13:00: Usotz P - Bazar Toki On. K. Alparga

Atsedena: Etxerat

### SAILKAPENA

#### A MULTZOA

	P	J
1. Bikain Akademia	15	8
2. Goma2	14	8
3. Chapime Dribling	14	8
4. Iritz Taberna	12	8
5. Betrayer	9	7
6. Usotz Potroak	8	7
7. Aurrera Bolle	8	8
8. Rayo Aldeano	7	8
9. Lasgabaster	7	8
10. Estu Ta Larri	6	7
11. Saukelu Scream	6	7
12. Fraguel Gol	5	8
13. Makanaki	5	7
14. Bazar Toki On	4	8
15. Maldifa's	2	7
16. Txotx	0	8

#### B MULTZOA

	P	J
1. Etxerat	16	8
2. Azkena You Know	14	8
3. AT Celaya	12	8
4. AC Surcos	11	7
5. Irati STS	10	6
6. Bin Laden	9	8
7. I.K.P.	8	7
8. D.D.K.	7	7
9. Komando Alpagat	6	7
10. Koka Junior Basati	6	7
11. E.G.D.	4	7
12. Abocajarro	2	8
13. Full Duplex	2	7
14. AKTA	2	8
15. Etxinai!	1	7

## KIROLAGENDA

### JOKATZEKOAK

<b>FUTBOLA</b>
Zestoa - Mondra
Erregionala. Zapatuan. 15:30. Zestoa.
<b>Ordizia - Arrasate</b>
Ohor. gazteak. Domekan. 15:45. Ordizian.
<b>Internacional - Arrasate</b>
2. gazteak. Zapatuan. 12:00. Donostian.
<b>Lagun Onak - Arrasate</b>
Infantilak. Zapatuan. 09:45. Azpeitian.
<b>Arrasate - Lagun Onak</b>
Ohor. kad. Zapatuan. 11:00. Atxabalpen.
<b>Arrasate - Almen</b>
Neskak. Zapatuan. 15:45. Atxabalpen.
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>Kenci Arrasate - Getxo</b>
Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen
<b>Kenci Arrasate - La Salle</b>
Junior mut. Zapatuan. 16:00. Musakolan

Opticas Garrastazu - Kenci Arrasate Junior neska. Zapatuan. 18:00. Kanpoan.

<b>ESKUBALOIA</b>
<b>Arrasate - Legazpi</b>
2. seniorrak. Domekan. 11:30. Musakolan.
<b>Tolosan - Arrasate Almen</b>
1. seniorrak. Domekan. 12:00. Tolosan.

<b>ERRUGBIA</b>
<b>Durango - Arrasate</b>
Seniorrak. Zapatuan. 16:00. Durangon.

<b>EMAITZAK</b>
<b>FUTBOLA</b>
Erregionala: Ondarroa - Mondra ..... 0-4
Ohor. gazte maila: Koxkas - Arrasate ..... 5-2
2. mailako gazteak: Arrasate - Mariño ..... 1-3
Ohorezko kadeteak: Arrasate-Tolosa ..... 1-2
Infantilak: Hernani - Arrasate ..... 3-0

<b>SASKIBALOIA</b>
<b>Seniorrak</b>
Askartza - Kenci Arrasate ..... 82-78
<b>Juniorkak (mutilak)</b>
Ordizia - Kenci Arrasate ..... 56-44
<b>Juniorkak (neskak)</b>
Kenci Arrasate - Eskoriatza ..... 19-23
<b>Kadete (mutilak)</b>
Gros Xake - Kenci Arrasate ..... 46-88
<b>PILOTA</b>
<b>Debarroko Txapelketa</b>
<b>Kadeteak:</b>
Jimenez - Gonzalo 22 - Aretxabaleta 11
<b>Gazteak:</b>
Uribarren - Agirre 22 - Aretxabaleta 6
<b>Seniorrak:</b>
Zugasti - Lazkano 8 - Errasti anaiak 22a

## ONERAKO ETA TXARRERAKO AIPAGARRIAK

**AZKENA YK-REN ETA AC SURCOS-EN PARTIDUA, ASTEBURUKO ONENA**  
B multzoko goiko postuetan dauden bi taldeek indarrak neurtu zituzten joan den zapatuan, eta partidua ona izango zela ikusita, antolakuntzak zapatu eguerdia aukeratu zuen partidua hori jokatzeko. Aurreikuspenek ez zuten kale egin, eta, gol gutxi izan baziren ere, asteburuko partidua ikusgarriena izan zen. Zorionak AC Surcos taldeari.

**AT CELAYA ETA EGD TALDEEK PARTIDUA GOGORRA JOKATU ZUTEN**  
Zapatuan, goizeko hamaitetan, AT Celaya eta Ez Gaude Denok taldeek indarrak neurtu zituzten. Partiduan joko beroa izan zen nagusi, eta sarrera bat baino gehiago egin behar ez diren horietakoak izan ziren. Epaileak bi talde horietako jokalariai lagunak zirela jakin zuenean, sinistu ezinda zebilen. Eskerrak lagunak zirela!

## KUTXA-REAL SOCIEDAD TXARTELAK Oso Realzaleentzat bakarrik



Zu bezalako pertsonentzat, Real oso modu berezian sentitzen dutenentzat, pentsatuak daude Kutxa-Real Sociedad Maestro eta MasterCard txartel berriak. Txartel hauek erabiltzeagatik, prestazio finantzario guztiez gainera, opariak ere lortu ahal izango dituzu. Anoetako partiduetarako sarreraren zozketan parte hartu, eta bi pertsonarentzako bidaia baten zozketan ere bai,

gure taldea bere desplazamenduetako batean laguntzeko. Gainera, 2002ko otsailaren 1a baino lehen eskatu eta erabiltzen baduzu, CD zoragarri bat, Txuri-Urdin abestiaren 5 bertsio berezi biltzen dituen, eramango duzu opari.



Eskatu kutxaren bulegoetan edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

# Osasun Gida

## AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. .... ☎ 943 77 13 34

## DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A. .... ☎ 943 77 05 57

## ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1. .... ☎ 943 77 00 40

## FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B. .... ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. .... ☎ 943 77 14 72
- HONORIO IZQUIERDO. Mendia Jauregia. Erdiko kale, 22. .... ☎ 943 79 72 16
- SONIA BOISA CASTELAO. Errebuelta, 2. 3D. .... ☎ 943 79 53 75 / 943 61 50 37

## LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37. .... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10. .... ☎ 943 79 48 77

## MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

## ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35. .... ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk. .... ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea. .... ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis. .... ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1. .... ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5. .... ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3-1.-B. .... ☎ 943 77 12 63

## OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6. .... ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1. .... ☎ 943 79 29 95

## ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzeziño, 2. .... ☎ 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea. .... ☎ 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4. .... (Mobila) ☎ 659 58 66 89

## PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37. .... ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10. .... ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10. .... ☎ 943 79 88 16

## UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. .... ☎ 943 79 44 22

## ELKARRIZKETA

JAIONE ALBENIZ/SABEL DANTZAKO IRAKASLEA

**“Sabelaz gain, gorputza askatzen eta mugitzen ikasten dugu”**

IKER BARANDIARAN

**B**ihartik hasi eta otsailaren 23ra arte, zapatue-ro, sabel dantza ikastaroa emango du Jaionek. Gazte Siletik jakinarazitakoaren arabera, ikastaro bitxi horrek harrera ona izan du. Arrasate Irratian izan genuen Jaione berbetan.

**Ikastaro berezia iruditu zaitzugu. Zer deritzozu?**

Zelanbait esanda, bai, berezia da. Dantza mota ezberdina da, oso alaia, bizia... Saltsa-eta askoz ezagunagoak badira ere, hau ere oso alaia da.

**Askotan sabel dantza beste kulturekin lotu izan dugu. Guk ere sabela mugitzeko mugikortasun nahikorik ba ote dugu?**

Bai, baina askotan, hasiera baten, behintzat, gogortuta egoten gara. Hala ere, saio pare baten ondoren berehala hasten gara askatzen.

**Arrasaten halako ikastaro bat egingo den lehenengo aldia bada ere, zuk sabel dantza irakasten denbora luzeagoa darazazu, ezta?**

Bai, Donostian halako ikastorduak ematen ditut, Dantzen etxean. Jende dezente joaten da.

**Ikastaroa zein jende motarendako dela uste duzu? Nori gomendatuko zenioke?**

Jende guztiari. Donostian, batez ere, emakumeak dabilta; hori bai, adin guztietakoak etortzen dira, 17 edo 18 urtetik 65 urte artekoak dabilta. Gizonezko bakarra izan dut orain arte, baina dantza hau eurendako ere bada.

**Filmetan sabel dantza egiten ikusten ditugun emakumeek sabel txikia izaten dute. Tripontzi samarra izanez gero, posible da sabel dantza polita egitea?**

Bai, noski. Gainera, kultura arabiarretan emakumeek gorputz handia izaten dute, orokorrean. Ez dira oso gorputz lirainak izaten. Filmetan *James Bond*-en emakumeak dantzan agertzen badira ere, errealtatean ez da horrelakoa.

**Eta sabel dantza zelan erakusten da?**

Bueno, aurrena, pixkanaka-pixkanaka gorputza askatzen joatea. Sabel dantzan, sabela mugitzeaz gain, gorputz osoa mugitzen da. Hortaz, zatika-zatika gorputz osoa askatzen ikasten dugu. Gero, erritmo pixka bat hartu, koreografia bat egin, pausoak sartuz joan... Baina, aurrena, gorputza atalez atal askatu.

**Baina lehenengo pausoa**



ARRASATE PRESS

**“Gizon gutxi izan ditut ikastaroan, baina eurendako ere bada sabel dantza ikastaroa”**

**ez litzateke izan beharko lotsa kentzea? Hori zaila da?**

Ba, aurreneko eskolan batzuek lotsa izaten dute, baina hortik aurrera berehala uxatzen dute lotsa.

**Eta zuk, non ikasi zenuen sabel dantza?**

Ni Donostian hasi nintzen, Maria Martinezekin. Gerora, kanpoko jendearekin ere ikastaroak egin ditut: alemaniar batekin, estatubatuar batekin... Lekuan lekuko dantzak izaten direnez, horiek probatu eta ikasi gura izan ditut.

**Ikasi bai, baina gero ikastaro orduetatik kanpo praktikan jartzen dituzu?**

Ikastaro orduetan bai, eta

**“Arabiar kulturetan, emakume lirainek baino gorputz handiko emakumeek egiten dute dantzan”**

etxean, beste musikariek entzuten ez dudanez, han ere ahal dudanean praktikatu egiten dut, gelditu barik.

**Azkenaldian, adibidez, saltsa dantzatzeko lekuak ugalduta dira. Sabel dantza egiteko, ordea, nora jo dezakegu?**

Egia da. Oraindik sabel dantza dantzatzeko aukera gutxi dago. Tabernetan ez da batere ohikoa. Normalena da etxeetan elkartu edo festak egitea eta dantzan egitea.

**Sabel dantza erotikoa dela esan ohi da. Hori mitoa ote da?**

Erotikoa baino sentsuala dela esango nuke. Gero, erabileratik erotikoa eman gura izanez gero, aukera izango luke.

## KULTURAPILULAK

**Txalo antzerki taldeak ‘Banbulo’ lana eskainiko du domekan Amaia Udal Antzokian**

Domekan, 19:30ean, Txalo antzerki taldeak Bernardo Atxagaren *Banbulo* antzezlana eskainiko du Arrasateko Amaia Udal Antzokian. Bernardo Atxagaren lana berbagai hartuta Ramon Barrea zuzendutako lan horrek arrakasta handia izan du. Adin guztietara zuzenduta dagoen lan hori sei aktore ezagunek antzeztuko dute: Virginia Imaz, Loli Astoreka, Begoña Bilbao, Itziar Rebele, Carmelo Muñoz, Xabier Agirre eta Jose Cruz Gurrutxaga. Sarri-ra zazpi euro kostako da, eta Gazte Txartelarekin, sei.

**Arrasateko Udaleko Kultura Sailak abian jarri du 2002ko Aratusteen kartel lehiaketa**

Arrasateko Udalak abian jarri du 2002ko Aratusteen kartel lehiaketa. Izan ere, kartelak urtarrilaren 25a baino lehen bidali behar dira Udaleko Kultura Sailera. Parte hartzeko, Arrasaten bizi edo errolatuta egon beharko da. Horrez gain, teknika librea izan go da, baina kartelen neurriak hauek izan beharko dira: 50 x 70 zentimetro. Formatua, nahitaez, bertikala. Lehiaketaren irabazleak 360,61 euro jasoko ditu.

**Deba Korkons musika taldeak estreinako kontzertuak emango ditu asteburu honetan**

Arrasateko eta Soraluzeko musikariek osatzen duten Deba Korkons taldeak estreinako kontzertuak emango ditu asteburu honetan. Zuhaitz, Brian, Enaitz, Txisko eta Danzig-ek emanaldi bi egingo dituzte: bata, egubakoitzean, Aretxabaletako gaztetxean; eta, bestea, zapatuan, Arrasateko Iluntz tabernan. Rock-and-roll talde horren kontzertu biak bereziak izango dira: batetik, bertsioak egingo dituztelako; bestetik, Danzig abeslaria kanpora doalako; eta, azkenik, emanaldi horietan beste gitarrista bat, Iñigo, ere izango dutelako lagun.



Anduezen 'Aita Guria' film laburra egiten ibarreko jende asko ibili zen.

**Sei film labur izango dira ikusgai datorren egunean**

IKER BARANDIARAN

Datorren eguna, urtarrilak 24, data berezia izango da ezohiko zinema gustuko dutenendako. Hain zuzen ere, Euskal Herrian edo euskaldunek egindako sei film labur izango dira ikusgai Amaia Udal Antzokian, 21:30etik aurrera. Ezagun da film laburrak ikusteko aukera gutxi izaten direla, hortaz, hitzordu aproposa da interesatuendako.

Ikusi ahal izango diren film artean, Jon Anduezen *Aita Guria* estreinatuko da. Horrez gain, beste bost egongo dira:

Ramon Salazarren *Hongos*, Iñigo Berdejoren *Ya no puedo caminar*, Pablo Maloren *Jardines habitados*, Javi Alonsoren *En las noches papá* eta Borja Cobeagaren *La primera vez*.

Hasiere baten, Jon Anduezen *Aita Guria* proiektuak behar zuten, baina Anduezen berak eta Udaleko Kultura Sailak film labur sorta lortu dute.

Esan beharra dago *Hongos* filmak berrogeita hamar bat sekunduz jaso dituela eta *Jardines habitados* ere sarritu izan dela. Horrez gain, *La primera vez* film sarirako proposatu dute.

E, TXO!

GUREGAIK / KONTZERTU INDARTSUA GAZTETXEAN

GAZTEENDAKO WEB ORRIALDEA

Gipuzkoako Gazteria Sailak web orrialdea estreinatu berri du. Honako hau da orrialdearen helbidea: [www.gipuzkoa.net/gazteria](http://www.gipuzkoa.net/gazteria), hain zuzen ere. Orrialde horretan gazteriarekin lotutako hainbat gairi buruzko informazioa jaso dezakezue: aterpeteen ingurukoa, musikari buruzkoa, dirulaguntzen ingurukoa... Baita Gazteria Zerbitzuaren plan estrategikoari buruzkoa ere.

TXATXILI BEGIRALE BILA

Txatxilipurdi elkarteak urtean antolatzen dituen ekintzetarako begirale taldea osatu gura du. Interesatuak jo dezatela lehenbailehen elkarteak Pablo Uranga 4.enean duen egoitzara edo dei dezatela 943-795446 telefonora.

'EL PILOTO SUICIDA'

Gaztetzekoek domeketan futbolari alternatiba edo beste irtenbide batzuk topatzeko daramaten egitasmoak bide onean jarraitzen du. Joan den domekan, esaterako, Oskar Beorlegi nafarrak *El Piloto Suicida: Manual de supervivencia para andar por la vida* liburua aurkeztu zuen, eta harrera ona izan zuen gazteen aldetik. Berrogei bat gaztek Beorlegiren esan bitxiak entzun zituzten, eta hark ekarritako liburu guztiak agortu egin ziren.

DEBA KORKONS

Musika taldea sortu dute Arrasaten: Deba Korkons. Beste musika talde batzuetan aritu eta aritzen diren bost gaztek osatu dute. Modu bitxian estreinatuko dira asteburuan, abeslariari agur esango diote-eta. Hitzordua bihar, 18:30ean, Iluntz tabernan.

# Lif, Izaera eta Spank<sup>(2)</sup> taldeek kontzertua emango dute bihar

IKER BARANDIARAN

Kontzertua antolatu dute AGAKOkoek zapatu honetarako. Hondarribiko Lif, Iruneko Izaera eta Arrasateko Spank<sup>(2)</sup> taldeak arituko dira Arrasateko gaztetzean, gaueko bederatzi eta erdietatik aurrera.

Hondarribiko Lif taldea gogor arituko da bihar gaztetzean. Esan Ozenkik kaleratutako lehen diskoarekin zeresana eman zuten Euskal Herrian. Gerora, metaletik eta *hardcore*-tik pixka bat aldentuta, Metak diskoetxearekin bigarren lana kaleratu zuten, orain aurkeztera datozena, hain justu ere. Lan horretan gitarrei garrantzi handiagoa eman diete Lif taldekoek.

*Arrasateko Spank<sup>(2)</sup>* taldea ere fin ei dabil biharko kontzertu arrakastatsua prestatzen

ARRASATEKOAK ERE ARITUKO DIRA

Baina Lif taldekoak ez dira bakarrik arituko. Eurekin Iruneko Izaera talde gaztea ere taularatu da. Duela gutxi oso diseinu bereziko CDa kaleratu berri dute, eta gaztetzean eskuratu ahal izango da. Lisabören antzera, *post-hardcore*-tik eta giro ilunetatik



Lif taldekoek bigarren diskoa aurkeztuko dute bihar Arrasaten.

gertuago daude horiek. Azkenik, Musakolako Spank<sup>(2)</sup> talde gaztea ere arituko da. Dagoeneko kon-

tzertu batzuk eman izan dituzte eta badirudi biharko kontzerturako fin entseatzen dabiltzala.

LOTSABARIK / Nahikari Ganboa

## "17 urte adin aproposa da parrandarako"

IKER BARANDIARAN

Nahikarik ez ei zuen elkarrizketa hau egiteko asmo handirik, baina azkenean konbentzitu egin genuen. Ikasketekin buru-belarri dabilela esan digu eta sinesten diogu, baina askotan kalean ikusten dugu.

- Txikitan, zer izan gura zenuen?
 

Ile apaintzaile edo irakasle izan gura nuen. Baina orain, adinez nagusitu ahala, iritziz aldatu egin dut: gurago dut erizain izatea.
- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?
 

Erizain moduan, ospitale

baten, eta, batez ere, jaioberriekin lanean. Oso gogoko ditut ume txikiak, eta, bestalde, odola ikus-teak ez nau beldurtzen.

- Zein da, zure ustez, adin ideala?
 

Nire edadea: hamazazpi urte. Parrandak egiteko aproposa da edade hori.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
 

Familiari, lagunei eta ikasketei. Askok arduratzen naute ikasketek. Orain arte ondo joan dira. Gerora, ikusi behar...
- Zerk ematen dizu lotsa?
 

Zenbait jenderen aurrean berba egiteak eta jendeak adarra jotzen dizunean zertaz ari den ez jakitea.

- Eta zerk arduratzen zaitu gehien?
 

Familiakoak, lagunak eta ingurukoak egoera txarrean ikus-teak.
- Zer falta zaio Arrasateri gazteendako?
 

Gazteak egoteko lekuak falta dira.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
 


Begiak, zerbait esatearren.
- Arrasaten ligatzen da?
 

Bai, baina kanpoan gehiago. Kostaldean, adibidez, errazagoa da.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?
 

Gorputzari lehenengo, eta gero izaerari, jakina.



ADINA: 17 urte • IKASKETAK: Bigarren Batxilergo Zientifikoa • ZALETASUNAK: Euskal dantzak eta kirola. LIBURU BAT: 'Berandu da gelditzeko' • FILM BAT: 'El hombre que susurraba a los caballos' • MUSIKA TALDEA: Denetarik entzuten dut. • KIROL TALDEA: Reala.



Salmenta eta zerbitzua

## IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE


## LAN ESKAINTZA

AUKEA Kirol Erakundeak LAN-POL TSA hau osatzeko deia egiten du:

### KIROLDEGIKO ATEZAINAK

Oinarriak: Musakolako Kiroldegian (tel.: 943 771677)

Izenematea: ez da beharrezkoa. Interesatuak zuzenean azaldu urtarrilaren 24an, osteguna, goizeko 10:30etan Musakolako Kiroldegian.



AUKEA  
Kirol Erakundea

BEHEKO DENDATIK

# Jon Garagorri

INSTITUTO OPTIKO-KUE

XABIER URZELAI

Jonek euki dauen goixakin, gatxa da elkarrizketie egitteko euki dauen pazientzia eta umorie eukittie. Semiari esker ez dau lo askorik egin, eta, hori gutxi balitz, etxie ia inundau egin jako. Ez da gutxi eguakotx gox baterako, baiñe, hala eta be, aurpegi onakin erantzun dittu galderak. Eskerrik asko, Jon.

Amets bat?

Pozik bizi izetie.

Amets txar bat?

Gerrie eta gosie.

Egin dozun azken biajie?

Tunisiara, abenduen.

Txartel horixe, zeñei?

Politikuei.

Eta gorrixer?

Hori be eurei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

*Solo ante el peligro* / Biografiak, interesantiek izeten die / Bruce Springsteen, rocka orokorrien, eta *funky* estilue be bai.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Tabernetako txikiteue.

Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Daukon parkiek.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Alde zaharrien erosteko errez-tasunak jarriko nittuke. Aparka-lekuen arazue, argi gehixago...

Eta lehendakari izengo bazitze?

Ahaleginduko nitzake hamen-go arazue ganoraz konponketan.

ARRASATE PRESS barrixe gustau jatzu?


Bai, errezago irakurten da.

Ezagutu dozun pertsona inter-esante bat.

Txiki Begiristain.

Eta ezagutu nahiko zeunke-ena?

Bin Laden.



*"Lentillak onak die, baiñe nahixago dittut betaurrekuek. Erromantikuaguek dielako-edo"*

Tranpan ibilttekotan nor-baittekin, zeñekin?

Hori sekule be ez. Hori da erantzun aproposena. (Badaezpada be).

Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?

Españiako telebisiñoko *Documentos TV / La movida deportiva* entzuten dot, baiñe ez da oso ona.

Miope asko dago herrixen?

Bai, asko.

Lentillak ala betaurrekuek? Betaurrekuek, daukien erromantizismuagatik.

Betaurreko marka bat?

Siluet.

Ze dauko Oakley markiek?

Amerikanue dala, eta hareik oso onak diela marketina egiten.

*"Itxuek, askotan, ondo ikusten dauenek baiño argixago ikusten dittue gauzak"*

Lentia onak die, baiñe monturie ez da bat be ona. Horrekin batera, onenak izen die betaurrekoek kirol-tara moldaketan.

Eguzkittako betaurreko merkienek zenbat balixo daue?

4.000 pezeta. (24 euro inguru).

Eta garestixenek?

70.000 pezeta inguru. (kanbixau zuk eurotara).

Ondo ikusten ez dauenak gure ez duelako da?

Ez, baiñe itxuek, askotan, ondo ikusten dauenek baiño argixago ikusten dittue gauzak.

Laser bidezko ebakuntzie gomendatuko zeunke?

Bai, baiñe teknologia aurreratuena daukonangana juen ezkerro.

## NIREBIDAIAHURA/ Xabier Elgezabal

Australia, Singapur, Malasia, Indonesia, Tailandia, Tasmania, Zeelanda Berria / 2001ean

Hogeita sei urteko arrasatear honek zortzi hilabete behar izan ditu goian aipatzen diren hiru bidaiak bisitatzeko. Lurralde batzuetan turista gisa egon da, beste batzuetan lanean ibili da, eta ulertuko duzuen moduan, tarte honetan ez da posible izan zortzi hilabete bidaia bat laburtzea. Hori dela eta, bidaia luze hau hiru kapitulutan zatitu dugu, eta hona lehena:

Arrasaten lanean jardun eta diru apur bat aurreratu eta gero, Xabier Elgezabalek bidaia luze bat egitea erabaki zuen joan den urteko apirilean. Hasiera baten Australia zuen jomuga, eta hara abiatu zen. Hilabetez izan zen Sydneyn lanean, eta hango euskal etxetan hainbat lagun egin zituen. Han zegoela, Asia aldera jotzea erabaki zuen, Iruñeko eta Aretxabaletako bi lagunekin batera. Australiatik Singapurrerako bidea hartu zuten, eta handik iparralderantz, Malasiara. Sumatrako uhartera joateko astia ere izan zuten Indonesiako uharte handiena, hain zuzen-, eta munduko txoko hartako "paradisuan" hamar egun egin zituzten.


Sumatrako uhartetik Malasiako oihanetara itzuli ziren, eta hango natiboak ezagutzeko aukera izan zuen Xabierrek: "Oihanean euren kabuz bizi izateko gai dira natiboak, ez dute ezeren beharrik, eta harrigarria da ehiza tresnak zelan egiten dituzten". Thailandiarako bidea hartuta, Bangkok eta Asahyutaya hirietan izan ziren hiru lagunak, baina oporraldia amaitzear zela konturatuta, Singapurera bueltatu ziren, eta gero Sydneyra itzuli ziren. Hilabete pasatxoko "oporraldia" amaituta beste abentura buru-belarri jartzeko-unea iritsi zen, paraje asko zehar eta ikusteko. Datorren astean, abentura horren jarraipena...



*"Australiaran-egoeran zuzen ona, eta Asia aldera joan ginen"*

*"Malasiako natiboak gure diru ezer berririk oihanean bizi izateko"*

XABIER URZELAI



Xabier Elgezabal Malasiako natibo batekin.



**Eskoriatzan salgai partzelak eta etxebizitza adosatua**

*Promotoreak baimendutako agentzia bakarra*

**Udalatx Inmobiliaria A**

Tel.: 943 79 59 99  
Faxa: 943 79 92 00  
Maalako Errabala, 27 behea-ekz. ARRASATE

# Aretz

## Taberna

Markole, 5  
943 79 14 67

*Gorka ileapaindegia*

gorka ileapaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35 arrasate

943 77 13 78

*Gorka ileapaindegia*



ZAHARREN ETXETIK



ARTXIBOA

Geroago eta nagusiagoa izan, premia handiagoa egoten da noizbehinka medikuarengana joateko.

## Sendagaiak nork bere kasa hartu beharrean, medikuarekin berba egin

IKER BARANDIARAN

Aste honetatik hasita, Roman Balantzategi medikua hiru aldiz izan-go dugu Arrasate Irratian berbetan. Romanek berba egiteko aukeratutako gaia *Osasuna hirugarren adinean* da. Haren eta irratia baimenarekin, ARRASATE PRESSera pasatu ditugu hark irratian kontatutakoaren laburpen eta ondorioak.

Hasteko, Romanek azpimarratu nahi izan zuen hirugarren adinean oso garrantzitsua dela osasuna ondo zaintzea, eta adin horretan beste edozeinetan baino behar eta gabezia gehiago daukela. "Gainera, lehen gogorrenak bakarrik heltzen ziren erretirora. Baina gaur egun bizitza tasa asko igo da eta erretiratu ondoren, batez beste, beste hamazortzi urte bizi dira asko".

Batetik, iraganean jendeak medikuarengana joateko zeukan beldurra aipatu zuen. Izan ere, oraindik ere jende nagusi askok zera dio: "Ez noa medikuarengana, zerbait topatuko didalako".

Are gehiago, Romanen arabera, iraganean jende askok ospitalera joatea hiltzearekin lotzen zuen. Hala ere, eskerrak aurreiritzi horiek ezabatu diren.

Bestalde, Romanek familiako medikuak izan behar duen garrantzia aldarrikatu zuen. Haren ustetan, kasu gehienetan

### Osasun aholkularia

**Balantzategiren esanetan, medikuarengana joateko beldurra kendu egin behar dugu, eta familiako medikuari eskatu behar diogu guk behar dugun arreta eta denbora eskaintzea. Hura izan behar da gure laguna, osasun aholkularia, informazio emailea eta prebentzio lanak egin behar dituen.**

**Datorren astean: mediku azterketak.**

mediku horiek altak, bajak, erretak eta bolanteak besterik ez dute ematen. Baina hori ez da nahikoa. "Marañonek esaten zuen bezalaxe, garrantzitsua gaixoei entzutea da. Baina askotan ezin izaten dute horretarako astirik hartu".

Horra hor, bada, aholku batzuk: gizonetakoek, lana egiten duten bitartean, programatuagoak egoten dira, baina lana uzterakoan emaztearekin batera bizi behar dira eta batera programatu beharra dute.

Familiako medikuetara bueltatuz, egungo osasungintzan dagoen arazo handi bat farmakofagia da. Gaixoak espezialistarengana jotzen badu zuzenean, hark pastilak emango dizkio, eta horien nahasketak kalte handia egin diezaioke gaixoari. "Familiako medikuak ondo koordinatu eta zaindu behar ditu tratamendu horiek. Izan ere, pastillen %20ek erreakzio kaskarrak dituzte".

"Tratamenduen %40 bukatu barik uzten dira. Eta gero, jendeak sendagaiak bere kasa hartzeko joera arriskutsua dauka".

LABUR

### Joan den urtea ezin hobeto bukatu zuten Musakolako zaharren etxeak

Musakolako zaharren etxean Gabonetan jokaturako karta txapelketen berri emango dizuegu. Briskan zortzi bikote aritu ziren, eta Maria Begoña Beobide eta Mila Bengoa izan ziren irabazleak. Musean, berriz, hamasei bikotetatik Santos Barberin eta Marcelino Merino nagusitu ziren. Eta tutean hogeita bi bikotek jokatu zuten, eta Saturio Iglesias eta Manuel Izquierdok irabazi zuten.

### Toki Argi zahar egoitzakoak bidaiara polita prestatzen dabilta martxorako

Arrasateko beste zahar egoitza askok bezalaxe, Toki Argi egoitzakoak ere lanean fin ibiltzen dira, isilpean, baina lanean. Dagoeneko Gabonetako kontuak alde batera utzita, martxoaren 18tik 24ra Extremadura aldera egin gura duten txangoa prestatzen dabilta, eta hara joango diren bi autobusak beteta egi dituzte.

ZAHARREN AHOTIK

### Gloria Agirreurreta

DANTZARIA IZANDAKOA

Gloria 1929ko martxoaren 29an jaio zen, erdiko kalean. Ezagunak dira herrian hura eta haren bikia, Pastora; biak hala biak, ilehoriak.



#### Dantza betidanik gustuko izan duzu, ezta?


Bai, oso gaztetatik. Ahal nuen denetan egiten nuen dantza. Gure aita eta haren anaia oso dantzari onak ziren, aurrekulari izugarriak, eta neuk ere zaletasun handia hartu nuen. Gaztetxotan eskolan ibili nintzen, eta gerora, ezkondu nintzen arte, Cerrajeran egiten nuen lan.

#### Eta dantzari esker mundua ikusteko aukera polita izan duzu, ezta?

Bai, halaxe da. Gazte-gaztetan Seccion Femeninan sartu gintuzten, eta gure dantza irakasleak, Gregorio Santacruz eibartarrak, Madrilgo zezen-plazara eramanez gintuen, Cuzcoko lurrikaran kaltetutakoan alde dantza egitera. Hango promotore bati gure eta Espainiako sei bat dantza talderen ikuskizunak asko gustatu zitzaizkion, eta hainbat

herrialdetara eramanez gintuen. Bartzelonan itsasontzi batera igo eta Grezia, Turkia, Beirut, Jerusalem eta Belen-en izan ginen. Oso harrigarria izan zen. Gu ikustera etiketa-jantziz joaten zen jendea, luxuzko hoteletan lo egiten genuen, eta hainbat pertsonaia famatu ezagutu genituen, tartean Faruk erregea; haren jauregian izan ginen. Ali Khan-ekin, Agha Khan-ekin eta Rita Hayworth-ekin berba egiteko aukera izan genuen, eta oso jatorrak ziren. Gainera, Ritak gaztelaniaz zekien eta gure ikuskizuna ikustera ere etorri zen.

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10  
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



**ARRASATE  
HOTELA**

Biteri, 1

Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE



ARRASATE  
**Juan Ramon Badiola**  
Urtarrilaren 29an, urtebetetza. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Leire Badiola**  
Urtarrilaren 17an, 4 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Txomin Gallastegi**  
Urtarrilaren 9an, 10 urte. Zorionak, Itziar eta Raul lehengusuen partetik.



ARRASATE  
**Joxemari Gallastegi**  
Urtarrilaren 16an 13 urte. Zorionak, Itziar eta Raul lehengusuen partetik.



ARRASATE  
**Angel Balzategi**  
Urtarrilaren 13an, 64 urte. Zorionak, etxekoan partetik.




ARRASATE  
**Jon Gardoki**  
Urtarrilaren 15ean, 25 urte. Zorionak eta urte askotarako! TMT



ARRASATE  
**Sebas Gorosabel**  
Urtarrilaren 20an, 31 urte. Zorionak, mutikote! Koadrila.




ARRASATE  
**Oihana Corral**  
Urtarrilaren 16an, 22 urte. Zorionak, potxolaj!



**Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!  
Otalora lizentziaduna, 31.



**Adi!**

Hurrengo zenbakian, **urtarrilaren 19tik 26ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzera arte jasoko dira **ARRASATE PRES**eko egoitzan.

**OHARRA • OHARRA • OHARRA • OHARRA • OHARRA**

Ibai-Artek zozketatu dituen hiru otar erraldoien zenbaki sarituak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 25a izango da.

Agertu ezean, **HARREMAN GK**eri emango zaizkio hiru otarrak (800.000 pezetako balioa).

**ZENBAKI SARITUAK:**

1. Saria:  
**54.627** Epelde argazki dendan banatua.

2. Saria:  
**23.659** Tamayon banatua.

3. Saria:  
**36.954** Titaren banatua.



# Gida 2002

Zure  
postontzian  
aurkituko  
duzu laster...

Arrasate  
Aretxabaleta  
Eskoriatza  
Leintz Gatzaga  
Aramaio

# Txirritola

ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urtarrilaren 18a / 12. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Euskara zabaltzeko urte osorako ekitaldiak, Txirritolaren eskutik

UBANE MADERA

Txirritola euskara elkarteak tinko dihardu euskara gizartearen esparru guztietara zabaltzeko helburuarekin. Hori lortzeko, eta aurtengo urteari begira, hilabete bakoitzerako egitasmoak prestatu dituzte, Txirritolaren esanetan, "kultura eta sentiberatasuna uztartuko dituzten ekitaldiak".

Urtarrilerako, esaterako, diapositiba emanaldia antolatu dute. Datorren egunean izango da, hila-

ren 24an. Andoni Arriolabengoak, Indonesiara egin zuen bidaia oinarri, hango uharteen gainean jardungo du, 19:00etan, kultura etxean. Otsailerako, berriz, ipuin lehiaketa antolatu du Txirritolak, lehenengo aldiz. Otsailetik aurrera, esan bezala, hilero izango da ekitaldiren bat. Jakina, saio guztiak euskaraz izango dira eta euskal kulturarekin lotutakoak.

### EGUTEGIA

Orain dela urte bi sortu zen Txirritola euskara elkarte, "euskararen erabilera gizartearen espa-


rru guztietara hedatzeko" helburuarekin. Ordutik hona, eta helburu hori betetzeko asmoz, makinena bat ekimen antolatu dute; are gehiago, ekimen horietako batzuk dagoeneko urteroko hitzordu bihurtu dira: Sagardogileen eguna San Prudentzio egunean, Partxis Lehiaketa San Martin egunean edo Txirritola eguna irailean. Taldekideak pozik daude orain arte lotutako emaitzekin. Ana Martiarena Txirritolako kideak adierazi digunez, "gaitza da Aramaion zerbait egin eta jendeak parte hartzea; gaitza da jendea erakartzeko gauzak egitea; eta, herri txiki bat izateko, nahiko jende etorri izan da gure ekitaldietara".

### EGUTEGIA

Urtarrila: diapositiba emanaldia  
Otsaila: ipuin lehiaketa  
Martxoa: antzerkia (Orratz antzerki taldea)  
Apirila: Sagardogileen eguna eta talo ikastaroa  
Maiatza: Sendabelarrak (Alberto Altube)  
Ekaina: hitzaldia (Sahara)  
Uztaila: herri olimpiadak eta txalaparta ikastaroa  
Iraila: Txirritola eguna  
Urria: Itzal txinatarra  
Azaroa: III. Partxis Txapelketa  
Abendua: egutegia eta sukaldaritza ikastaroa.



Besteak beste, txalaparta ikastaroa izango da, Txirritolaren eskutik.



## Txotx Iturrietan!!! 10.000 litro zain

Atzo, eguna, txotx egin zuten Iturrieta sagardotegian. Aramaioar dezente elkartu zen han, herriko txalapartariekin eta trikittariekin batera, jai giro bikainean. Aurten, Iturrietakoek txotx ekitaldia aprobetxatu dute gurasoei omenaldia egiteko: "Haiei eskertatera da aurrera gure sagardotegia, sekulako lana egin dute, eta sentimendu osoz eskaini diegu omenaldia". 10.000 litro sagardo egin dituzte Iturrietakoek. Enologoaren arabera, iazkoa baino hobea izango da, denetarik du-eta: itxura ona, indarra, goxoa eta apurtxo bat iluna. Hortaz, probatzea besterik ez dago!

## HERRITARREN HITZA / Manex Agirre • Ikaslea

### Gasteizko argiez

Artikulu bat idazteko eskatu didate. Ez dut nire burua engainatuko. Ez zaituztet zuek ere engainatuko. Hemen idatzi behar ditudan hitzen erdiak ez dira nireak izango, sentitzen dut. Handik edo hemendik harturikoak izango dira eta nire eginak ondoren. Libururen batean irakurritakoa aurrez nik pentsatu izan dudala sentitzea ez zait askotan gertatzen, baina gertatzen zaidanean orgasmo txiki bat bezalakoa da. Horra ba, hitz anonimoak, neuretuak.

Gasteizen ari naiz ikasten, eta argitasun berezi bat duen hiria da Gasteiz. Argitasuna

zokondo guztietan sartzen da, itsugarria izateraino. Badira hiru edo lau aste txoriak gaueko hamabietan hasten direla kantuan Florida parkeko zuhaitz tantaletatik, argitasunaz gogaituta edo. Eta pertsonok ere aspertu egiten gara askotan hainbesteko argiz, ikusi beharrekoak baitira jendearen aurpegiak kaletik pasatzerakoan: nazka, tipulabegiak, begira odolduak. Apokaliptik hurbilen dagoen hiria da



"Egiteke daude irribarrerik zabalena"

anonimoen hitzak. Irakurri dugu arima lurrera erortzen zaigunean, errealitatea datorrela guregana eta esaten digula:

Gasteiz, munduko hiririk argitsuena, San Petersburgo edo Helsinki baino argitsuagoa.

Arima lurrera erortzen zaigu hainbeste argitasunekin, obratan daukagu Gasteizko biztanleok arima: aldamiok josita. Hitzak geratzen zaizkigu azken aukeratzat ordea,

begira nazazu, zure begiek bizitza osoan ikus lezaketena baino askoz ere handiagoa naiz ni. Irakurri dugu baita ere litezkeen gauzarik ederrenak ez direla oraindik idatzi, ez direla oraindik esan, egiteke daudela irribarrerik zabalena. Eta Gasteizko biztanleok dekretuz erabaki dugu (inoiz ez da dekretu bat hain polita izan): nola ez dugu arima obratatik aterako mundua hain zabala eta arrotza izanda? Gasteiz munduko hiririk argitsuena bada ere, hitz anonimoak geuretu eta arima altxatzen zaigu zeruraino edo ilargiraino edo... Politza da Gasteiz.

## LABUR

### 2002ko telefonoen gida banatuko dute aste bukaeran

Gaur hasi eta bihar jarraituko dute 2002ko telefonoen gida banatzen. Aurten lehenengo aldiz, Aramaioko telefonoen gida ere izango ditu gidak. Aurtengo sateko, Aretxabaletako, Eibarriatzako eta Leintz Gatzaga ko telefonoekin batera. Dena hain justu, herri horietako banatuko dituzte gidak, gutxi tira, 12.300 ale. Esan bezala, asteburuan banatuko dituzte horrela, astelehenerako (hilabete 21) jaso ez duenak 943712390 telefonora deitu edo kulturaren etxera joan beharko du.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak) . . . . .	945 44 53 40
Botika . . . . .	945 44 50 03
Udaletxea . . . . .	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate) . . . . .	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio) . . . . .	945 45 52 52
San Martin Eskola . . . . .	945 44 50 04
Taxia eta autobusak . . . . .	945 44 50 33
Udal kiroldegia . . . . .	945 44 53 35
Postetxea . . . . .	945 44 50 83
Zuiaiko Eskualdea . . . . .	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga) . . . . .	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

<b>ARRASATE</b>	<b>ARAMAIO</b>	<b>GASTEIZ</b>
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	
<b>GASTEIZ</b>	<b>ARAMAIO</b>	<b>ARRASATE</b>
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

**LABUR**

**ARETO FUTBOLA**

Zorioneko eta zoritzarreko emaitzak izan zituzten joan den asteburuan etxeko areto futbol taldeek. Zorionekoak, mutilak. Aramaioiko Bañerak 15-0 irabazi zion Gasteizko alde zaharreko El Campillo taldeari. Hori bai, gasteiztarren alde esan beharra dago lau jokalaririk bakarrik agertu zirela partidura.


Zoritzarrekoak neskek izan ziren. 0-29 galdu zuten Legutioaren kontra. Baina nabarmendu beharra dago, horrelakoetan askotan gertatzen den moduan, Aramaioko neskek zazpi mutilez eta neska bakarraz osatutako talde baten kontra jokatu zutela; hortaz, nekeza beste ezer egitea. Kontua da neska bakarrik osatutako oso talde gutxi daudela areto futboleko txapelketa horretan.

Oraingo asteburuan, berriz, Gasteizen jokatu dute Aramaioko talde biek. 10:30ean, Bañera taldeko mutilek Calasanz ikastetxe-ko taldearen kontra jokatu dute, eta 11:00etan, Bañerako neskek Antonio Fornies ikastetxe-ko Baro Calo taldearen kontra.

**KIROLA**

**Zapatuan, paleta txapelketa hasiko da, eta partiduak kiroldegian izango dira**

Zapatu goizean ekingo diote amateurren paleta txapelketari. Hamar bikote lehiatuko dira aurretan, bi taldetan banatuta. Gomazko pilotaz, 35 tantora izango dira partiduak. Astebururo jokatu dute, lau partidu aldi bakoitzean; horrela, bikote batek atsedean hartuko du aldiro. Partiduak zapatuetan izango dira, kiroldegian; eta, kiroldegia okupatuta egonez gero, zapatuetan eta domeketan jokatu dute. Oraingo zapatuan, 09:00etan, hasiko dira partiduak, Emiliok eta Xabik Barandiaran aita-semeen kontra jokatu dute. 10:00etan, Amasene anaiak Josuren eta Julianen kontra arituko dira; 11:00etan, Arriolabengoa eta Azurmendi Abarrategi eta Arriolabengoaaren kontra. Eta 12:00etan, Oyanguren eta Garaitak Aspe anaiei kontra jokatu dute.



**AUZOENIZENAK**

**DONTXOREN ALABA III**

(Patxike Ibabek kontatuta; azkenengo atala)

Mutillek aurkittu auen dirue ordaintzeko (sorginak eskatu ziona esateko non zegoen gordeta edo bahituta Dontxoren alaba). Hartu auen dirue eta orrek sorgiñ orrek badakitzu nora eruen auen? Eruen auen Albiña. Mutille eruen auen Albiña ta Albiñan lotu in auen, arbola bati lotu, lotu eta dirue kendu eta esutzen ezer esan. Gero inkluso areik zorrak pagetako mutille fuen san Ameriketara.

Da gero, lenau esaten dauie Bittoixatik pasetan ziela oiñeskuek eta zaldixekin, e zeretik, hor Arangixo ingurutik.

Eta orduen, holako gizon batek zarata desberdiñek edo zeozer entzun zittuela ta orduen agertu zan hori, zera neskioi auela, bueno, esaten auien auela ezta kitt zelako uliekin, ulie luzie, baiñe pertsona be etzauela amuten, zelan auen haiñ desfiguraute.

*Aramaioiko ipuin eta legendak*

**BOTEPRONTOAN/ Juanito Saizar · Autobus gidaria**

**“Euskal Herri barik, Europak ez du tokirik”**

**B**erastegierra izatez, Etxoeinberri baserrikoa, 14 urte zituela Arrasatera ikastera joan zen Juanito Saizar, eta 19 urte zituela Aramaioa etorri zen. Gaur egun, Haizate baserrian bizi da, Azkoaga auzoan:

**Zelatan Aramaion?**

Hemeretzi urte nituela, gaur emaztea dudarekin irteten hasi nintzen, eta hura aramaioarra da...

**Eta ze moduz Aramaion?**

Ondo ez dakit, baina pozik bai. Uste dut ongizatea, ondo edo gaizki egotean baino areago, hobeto neurtzen dela poztasunean, eta ni pozik bizi naiz.

**Zelakoak dira aramaioarrak?**


Hasiera-hasieratik oso ondo hartu ninduten, batez ere, nire emaztearen familiaren inguruan. Oso irekiak dira; sukaldea jendez beteta ikusi izan dut beti.

Askotan entzun izan diet gurasoei bazutela kezka hemen bakarrik zein bide hartuko nuen, eta sekulako lasaitasuna hartu zuten ikusita hemengo familiakoak zelakoak ziren. **Autobus gidaria zara; gustuko duzulako?**

Kasualitatez. Lantegiko lana utzi nuenean, 23 urterekin, emaztearen familiarteko baten bitartez pinuak botatzeko aukera eman zidaten. Eta, maizterrekin eta haren bazkideekin, Errioxara gonbidatu gintuzten, egun pasa; baserriko nagusia lagun batzuekin joan zen, eta, kasualitate hutsa, han zen Bergaresa-ko jabea. Kristoren mozkorraldiarekin ezagutu genuen elkar:

**“Kamarero zarala entzun dot...”**

Koinatuak Dukiena taberna dauka, eta hari laguntzen ibiltzen naiz.



**Abiadura Handiko Trena Aramaiotik dator...**

Berez trenzalea naiz. Hobeto ikusten dut trena kamioizko garraioa baino. Garbiagoa da, traba gutxiago egiten du, merkeago ere bada... Baina AH Ta ez dut uste Aramaio edo ibar honen zerbitzurako pentsatuta dagoenik, eta ibarrak izango duen txikizioak beste batzuek ordaindu beharko ditugu.

**Euskal Herriak izango du lekurik European?**

Jakina, Euskal Herri barik, Europak ez du tokirik. Adibidez, giza gorputza ez litzateke osoa begi barik; ba, Europarekin ere gauza bera gertatzen da.

**Urte berrirako asmo on bat?**

Arazoen aurrean nola konpondu galdetzeko gaitasuna izan eta borondate onarekin konpontzera iritsi; noski, hori bakarka edo herri mailan egitea gauza bera da.

**“PAL”**

**burdindegia, brikolage eta tresneria**

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE



**Hilbera kafetegia**  
Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70

**ASESORIA ARRASATE**

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32. 1 ezk • ARRASATE  
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

**HIES BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

## ERRETRATUZAHARRA

## Duela 25 urte, ikurrina ipini zuten Udaletxean

**B**ihar, zapatua, 25 urte beteko dira ikurrina legeztatu eta lehengo aldiz Euskal Herriko udaletxeetako balkoietan ipini zutela. Arrasaten ere halaxe izan zen. Orduko udalbatzarrak osoko bilkura egin zuen ikurrina ipini edo ez erabakitzeko. Baiezkoa irten zen; hala, Udaletxeko balkoira irten eta, herriko plazan batu zen jendetzaren aurrean, ikurrina altxatu zuten. Udalbatzarrak onartutako testuak zioenaren arabera, "Euskal Herriaren ikur moduan eta gure foruak berreskuratzeke sinbolo moduan" onartu zuten ikurrina.

Honako hauek erabaki zuten 1977ko urtarilaren 19an Arrasateko Udaletxeko balkoian ikurrina ipintzea.

Goian, ezkerretik hasita: Gabriel Mendizabal, Gillermo Aspiazu, Jose Mari Agirreurreta, Bixente Azkarate, Iñaki Muxika eta Imanol Irazola; haren atzekoa, burua justu-justu ikusten zaiona, Francisco Javier Quintana da, hurrengoa Gregorio Etxabe eta ilarako azkena Jose Mari Untzueta.

Eta behean, berriz, honakoak ageri dira, ezkerretik hasita: Jose Luis Otadui, Tomas Atxa, Alberto Martínez de Ubago, Jose Antonio Altuna (orduan alkate zena), Ignacio Urionabarrenetxea, Agustin Arregi eta Alvaro Arregi.

**Argazkia:** Bixente Azkarate

**Informazioa:** Bixente Azkarate eta Arrasateko Udala

**Urtea:** 1977



## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

### Maala kalea Eukaristia Kongresuan

**A**rgazki zahar honetan Maala kalea apainduta ikus dezakegu. Eukaristia Kongresua ospatzeko asmoarekin apaindu zuten kalea horrela. Baina argazkia zein urtetakoa den ezin izan dugu zehatz-mehatz jakin. Gaur egun, Gabonetan izan ezik, Arrasateko kaleak ez dira horrela apaintzen. Eta, egia esan, Maalak beste itxura bat zeukan.



± 1930

Etxeek beste itxura bat daukate, eta kaleak orduko gauza batzuk galdu egin ditu dagoeneko: Aizkora taberna, adibidez.



2001

Gaur egun, oinezkoendako kalea da Maala. Zerbait irabazi du: komertzioen erakusleku esaterako.



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**ION LEIHOAK**

Leihoak  
Ateak  
Horma armairuak  
Zoruak

Kanpantorrea, 2  
Tel./faxa: 943 79 11 35  
20500 ARRASATE



**ARRASATE ORTOPEDIA**

Osakidetzarekin eta Lagun Arorekin hitzartua

- Lantegi teknikoa (kortseak, protesiak, aparatu ortopedikoak)
- Gurpil-aulkiak (aluminiozkoak, elektrikoak, tolesgarriak, umeendakoak)
- Laguntza dinamikoak (komun igogailuak, garabiak, oheak, makilak)
- Oinaren tratamendua ordenagailu bidez (ordenagailutik bertatik kontrolatua)

Maalako Errabala 8 / Tel.: 943 77 20 78  
Astehenetik egubakoitzera: 10:00-13:00 eta 16:30-20:00

Segurtatu hobeto zure autoa  
**Segurtasun osoz**



Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

# Merkealdiak



KIROLA ZEURE ESKURA


Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala



*Zure ametsak geurean  
errealitate bihurtuko dira*



**iKER**

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

**FAGOR** 